

KARKARA

GUKA



NADETH AGIRRE ETA UNAI MANTEROLA

ADIORIK EZ

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA



Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 · 623 47 57 52
 ardoraaraindegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 ...orio...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

azkue

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN

KAÏOA



kaioa_denda
 www.kaioa.es



KARKARA 454

2023-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | |
|--|--|
| <p>5 Iritzia Andrea Zipitria
<i>Gidariak</i></p> <p>6 Hitz tantak Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Haizea Gozategi: "Herrialde askotan oso serio hartzen dute arraunketa olinpikoa"</i></p> <p>8 Akuilua hartuta Orioko Meskitako Komunitate Islamiarra <i>Eskerrik asko Orio</i></p> <p>9 Puntua Jarrita Intza Eizagirre</p> <p>11 Gutunak</p> <p>15 Moila bazterretik Aritz Pardina
<i>003 zenbakia izan nintzenekoa</i></p> <p>17 Herrian galdezka</p> <p>18 Elkarrizketa Jon Agirresarobe
<i>Unai Manterola "Gauzarik politenak unerik zailenetan familiakoek eman dizkidaten besarkadak dituk"</i></p> | <p>26 Elkarrizketa Aritz Mutiozabal
<i>Nadeth Agirre "Nire izateko moduagatik iritsi naiz jende askorengana"</i></p> <p>32 Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Tradizioa, berrikuntzak eta esperantza</i></p> <p>37 Euskara Amaia Olazabal
<i>Leina Casanova: "Euskara niretzat bizitza da: kristalezko bolatxo bat bezala irudikatzen dut"</i></p> <p>38 Guka erreportajea Aitziber Arzallus Adimen <i>artifiziala arrisku baino aukera gehiago</i></p> <p>46 Izpiak eta hizkiak Aiora Larrañaga Solaberrieta <i>Bada giroa Orioko gazteen artean</i></p> |
|--|--|

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Onintza Lete Arrieta
Andrea Zipitria
Aritz Mutiozabal
Diseinu arduraduna
Saloa Perona Balda

Publizitatea

Leire Martija
Mikel Azkue
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Aritz Pardina
Jon Agirresarobe
Iñaki Iturain
Amaia Olazabal

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
UDALA

Babesleak:



DANOBATGROUP

DOMUSA
T E K N I K

PUBLIZITATEA



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
Horia
Aibaitaritzza klinika

ESTROPALARIZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

Kepa Loidi
harategia-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 · Orío · ☎ 943-83 25 65
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



EL EPA INDEGIA

Eusko Gudari, 8 behe · ORIO
943-13 47 29



LASTER
DESATASCOS

688 88 65 36 | 943-75 14 31
desatascos@desatascoslaster.com
ORIO | SORALUZE

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943-83 05 37
943-83 27 47

Gidariak



ANDREA ZIPITRIA

Agur hitzarekin bueltaka gabilitza azkenaldian. Ez dira errazak izaten agurrak. Gazitik gehiago izaten dute askotan, gozotik baino, eta zer esanik ez, tartean heriotza bada.

Gaur, ordea, bizitzako hasiera berriei jardungo dut. Hain zuzen ere, lerro hauek idaztera bultzatu naute Unai Manterola apaizaren eta Nadeth Agirre arraunlariaren agurrek. Lehenak, hemezortzi urtez jardun du Aian eta Orion parrokoa izaten eta aurrerantzean, Donostiako Artzain Ona katedralean biziko da.

Bigarrenak, hamalau urte bete ditu Orioko emakumeen traineruko patroia. Kontxako estropada amaitu berriaren iragarri zuen arrauna utziko zuela, patroia gisa behintzat.

Agirrek 2019an irabazi zuen estreinakoz Kontxako Bandera, eta arraun munduan preziatuena den Kontxako beste bi bandera irabazi zituen jarraian, 2020an eta 2022an. Emakumezkoen Traineru Ligan ere hiru txapel jantzi ditu; 2019an, 2020an eta 2022an, hurrenez hurren.

Lortutako garaipenak asko dira, baina trofeoez harago, biak ala biak izan dira herriaren gidari: bata fededunena, eta bestea, herriko emakumeen traineruarena. Azpimarratu nahiko nuke handia dela Agirrek herrian irabazi duena, edo tira, beste modu batera esanda, Nadethen irabazi du herria; gidaria ez ezik, erreferente ere bilakatu baita.

Handia diot, orain gutxi arte erreferente guztiak gizonezkoak zirelako. Krudela, baina aldi berean, egia. Erreferentea den kirolari, zientzialari edota mediku baten izena galdetzean, maiz gizonezkoak soilik aipatu ohi dira. Hori ez da gertatzen ez dagoelako arlo horietan buru-belarri lanean aritu den emakumerik, baizik eta gehienetan gizarte honek itzalpean jarri dituelako, emakume izateagatik soilik.

Generoaren gaia azaleratu zuen Agirrek berak Karkarak egindako elkarrizketetako batean, azalduz asko zirela herrian nesken traineruan sinesten ez zutenak bere sorreran. Estereotipoak hautsi ditu, ordea. Izan ere, emakumeak arraunean aritzearena, ez da historiako kontu bat; historia bilakatu du Agirrek. ■

**EMAKUMEAK
ARRAUNEAN
ARITZEARENA, EZ DA
HISTORIAKO KONTU
BAT, HISTORIA
BILAKATU DU AGIRREK**

IBER glass 

Automobilaren kristaleria

Errotulazioa

Hitzordua 689 34 11 01

edo LAIARANen



Estropalari, 12



LAIARAN

Lanerako arropak
5XL arteko tailak

PERTSONALIZAZIOA

Haizea Gozategi: "Herrialde askotan oso serio hartzen dute arraunketa olinpikoa"

TESTUA ETA ARGAZKIA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Haizea Gozategi arraunlari gazteak abuztuan Parisen jokatu zuen jubenil mailako munduko arraunketa olinpikoko txapelketa, eta hamaikagarren postuan sailkatu zen. Nazioarteko txapelketa batean arraunean egiten zuen lehen aldia izan zen, eta bertan bizitakoaz aritu da.

Nolakoa izan da esperientzia?

Munduko txapelketa bat jokatzeko sekulakoa da, baina guk, gainera, izan genuen aukera Parisko Joko Olinpikoetako arraunketa pista probatzeko. Eguraldi txarra izan genuen, eta horrek ez zigun utzi bete-betean gozatzeko, baina harmailak ditu arraunketa eremuak, eta arraunlariok senti dezakegu publikoaren berotasuna. Azpiegitura bera ikaragarria da, baita maila horretako txapelketa baten atzean dagoen antolaketa guztia ere. Munduko txapelketan gure helburua zen lehen hamabietan sailkatzea, finalerdiak jokatu ahal izateko; helburua beteta, gustura gaude hamaikagarren postua lortu genuelako.

Giro berezia izaten al da munduko txapelketan?

Bai. Klub mailatik selekzioko kontzentrazioetara saltoa nabari da; baina aldea are handiagoa da nazioarteko txapelketa batean. Herrialde askotako arraunlariak bildu ginen bertan, eta ohartu ginen herrialde askotan oso-oso serio hartzen dutela arraunketa olinpikoa. Arraunlari askok unibertsitatea eta kirol arloa uztartzen dituzte, eta arraunean oso zentratuta daude, etorkizun hurbilean goi mailan aritzeko prestatzen ari direlako. Espainiako selekzioko kide gehienok, berriz, batxilergoa ikasten ari gara, eta entrenamenduak eta ikasketak ahal dugun bezala uztartzen ditugu. Kirolari berari ematen zaion garrantzia alde handia antzeman dut herrialde batetik bestera.

Beste herrialdeetako arraunlariekin esperientziak trukatzeko aukera izan zenuten, beraz.

Bai. Gure hotel berean ostatu hartuta zegoen Alemaniako selekzioa, eta harremana egin genuen hango hainbat kirolarirekin. Hain zuzen ere, atentzioa eman zigun Alemaniako selekzioak kirol

arloan. Modalitate guztietara aurkezten dute ordezkariak, eta denetan oso emaitza onak lortzen dituzte. Errumaniak eta Italiak ere oso selekzio indartsuak dituzte; azken horrek domina pila bat lortu zituen Parisen.

Zergatik uste duzu dagoela alde hori selekzioen artean?

Espainian arraunketa olinpikoan jende gutxi aritzen gara, eta herrialde horietan, aldiz, errotuagoa dago kirola. Horrez gain, urtean zehar kontzentrazio gehiago egiten dituzte, eta blokea osatuta dute. Guk, berriz, hilabete eta erdi izan genuen munduko txapelketarako prestatzeko.

Kontzentrazioa aipatu duzu. Nolakoa izan zen txapelketa aurreko prestaketa?

Lehen astean probak egin genituen arraunlari zerrendak aldatuz, konbinaziorik egokienak zein ziren definitzeko. Bigarren astean, berriz, ontzi batzuk erabakita zeuden, baina ez guztiak. Dagoeneko etxera bidali zituzten arraunlari batzuk, baina nik hor jarraitzen nuen, zer gertatuko zen jakin gabe. Bigarren astea izan zen gogorrena, ziurgabetasunagatik. Presioak eragindako zalantzak sortu zitzaizkigun guztioi, oraindik asko falta zelako txapelketarako eta ez zegoelako erabakita nork parte hartuko zuen. Saiatzen ginen gure onena ematen entrenamendu bakoitzean, baina bagenekien erabakia ez zegoela gure esku. Azkenean, lortu nuen txartela. Hortik aurrera, asko gozatu nuen entrenamenduez eta selekzioko dinamikaz.

Mundu berria ireki zaizu. Jarraitu nahi al zenuke nazioarteko txapelketetan parte hartzen?

Bai, Parisen nengoenean sentitzen nuen 20 urtetik gora ditudanean ere mundu horretan jarraitu nahi nukeela. Hala ere, herrira etorri eta *Alirona* ikustean, herriko traineruan arraunean egiteko gogoia ere sartzen zait. Tostako arraunketak herriaren babes handia du, eta berotasun hori sentitzea sekulakoa da arraunlariontzat. Batek daki zer gertatuko den; nik orain arte bezala entrenatzen jarraituko dut, uretan nire onena ematen. ■■■





Eskerrik asko, Orio

Irailaren 8an Richter eskalako ia zazpi graduko lurrikara batek gogor kolpatu zuen Maroko, bi mila hildako eta beste horrenbeste zauritu utziz. Orioko familia askoren sorteria da Maroko, eta gertatutakoaren aurrean, Orioko meskitako komunitate islamiarreko kideok material bilketa antolatzeko beharra sentitu genuen. Orion bizi garen marokoar gehienok iparraldekoak gara, eta gure familiek ez dute kalterik jasan, baina Marokoko Al-Hauz probintzia gogor kolpatu du, mendialdean kokatuta dagoen lurraldea, hain zuzen ere. Bestela ere behar gehien duen zonaldea da, eta lurrikarak egoera larrian utzi ditu bertako herritarrak. Lurrikarak gure senideei zuenean eragin ez badie ere, berdin-berdin sentitzen dugu herrikideen



mina, eta horregatik behar-beharrezkoa iruditu zitzaigun gure ekarpena egitea eta herrian bilketa antolatzeara.

Astebetez, goiz eta arratsalde aritu gara materiala biltzen, hamabi boluntario inguru. Hasieran nola antolatu ez bagenekien ere, beharrak erakutsi digu zein urrats eman, eta lortu dugu bildutako materialaren inbentarioa egitea eta txukun-txukun kaxetan

biltzea; 200 kaxa inguru bete ditugu. Orain, beste hainbat elkarte islamiarrek bildutako materialarekin batera, Marokora bidaliko dugu, eta kaltetutako zonaldean laguntzen ari den gobernuz kanpoko erakunde bat arduratuko da materiala beharra dutenen artean banatzeaz.

Ekimena antolatzeko lanean hasi ginenetik harrera bikaina

HAUXE BAI JENEROA!



izan dugu herrian. Udalarekin harremanetan jarri ginen, eta uneoro laguntzeko prest agertu zen, baita herriko boluntario taldea ere. Egin dugun deialdiak izan duen erantzuna ere paregabea izan da; oriotar pila

"IKARAGARRIA IZAN DA ERANTZUNA, ETA AITORTU BEHAR DUGU HUNKITU EGIN GARELA"

bat hurbildu da meskitara neguko arropa, higiene produktuak eta beste hainbat material ekartzera. Ikaragarria izan da erantzuna, eta aitortu behar dugu hunkitu egin garela, oriotarren solidaritatea ikusita.

Deialdia egin orduko hasi zen jendea meskitara etortzen, eta guretzat oso garrantzitsua izan da oriotarrak bertan ikustea, Marokorekin elkartasuna adierazteaz gain, gure jatorrizko kulturara hurbiltzeko urratsa ere badelako. Izan ere, Orioko komunitate islamiarra herriaren parte da, eta nahi genuen oriotarrek non biltzen garen ezagutzea. Zaragueta Herri Eskolan eta Orioko Herri Ikastolan ere egin dute material bilketa, eta ikasleak izan ziren bildutakoa ekartzera etorri zirenak.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Orioko herriari izan duen erantzunagatik. Elkarlanean lan bikaina egin dugu, eta herri solidarioa garela erakutsi dugu beste behin. Mila esker, bihotz-bihotzez. ■■■

PUNTUA JARRITA

Bertsolaria: Intza Eizagirre.
Doinua: Gazteak Lizargatez.

1 Iraila bukaeran dira gazte festak

Pare bat urtetan kieto zeudenak. Aurtun osatu gea ateaz gogo denak. Lelo eta helburuz saretuz gazteak.

2 Triki eta tanborrekin

piratak hasita Gaua bukatu genun ziaro bustita. Kaleak irriz eta algaraz josita. Egiya esan hua bagenun mezita.

3 Arroxiku lehiaketa

izantzan hurrena Atea zian on txar baita sosuena. Bertako giro puskaz goxatzia earrena Saretze hau mantendu ber da hoixe onena.

Hurrengo bertsolaria:
Aizpea Esnaola eta Miriam Garcia.

Puntua:
Pilliku plazan gaude sarea ehuten.



MENDIZABAL
AROZTEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Betti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Portu
Erreteta - Jateak

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orrio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

SU KIA
TABERNA · JATEXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

INDO
TRANSPORTES · FRIGORIFICOS

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Primerako bidaia Malagara

ZAHARREN BABESLEKUA

ORIO

Zaharren Babeslekuko kideok urtean behin bidaia luze bat antolatzen dugu, Kontxako Estropaden ondoren. Oraingo honetan Malagan (Andaluzia, Espainia) izan gara, eta primeran pasa dugu. Giro ezin hobea izan dugu geure artean, umorez gainezka ibili gara, eta oso toki politak ezagutu ditugu. Herriz herri ibiltzeaz gain, Caminito del Rey izeneko ibilbidea ere osatu dugu. Mendi arteko igarobide hori Los Gaitanes mendi-zintzurreko paretetan eraikita dago, eta benetan ikusgarria da. Hasieran gidariak pentsatu zuen ez ginela ibilbidea egiteko gai izango, baina denok osatu genuen, primerako eguna pasatuz.

Orain irteera motzagoa antolatzen ari gara. Leonera asteburu-pasa joango gara azaroaren 17tik 19ra. Ostiralean 08:00etan aterako gara, eta asmoa da igande arratsalderako herrira bueltatzea. Irteeran zehar Leon, Astorga eta Ponferrada ezagutuko ditugu. Irteeraren inguruko informazio

"GIRO EZIN HOBEA IZAN DUGU, BAITA OSO TOKI POLITAK EZAGUTZEKO AUKERA ERE"



Zaharren Babeslekuko kideak Caminito del Rey egin berritan. ZAHARREN BABESLEKUA

zehatzagoa jasotzeko edo izena emateko 626 47 14 23 telefono zenbakira deitu behar da.

Auzo Eguna

ANDATZAKO AUZO ELKARTEA

AIA

Urriaren 7rako Andatzako Auzo Eguna antolatu dugu Andatzako Auzo Elkartek. Aurrena meza izango da 12:00etan, eta ondoren, 14:00etan, herri bazkaria elkartean. Auzoko jaiez gain, urtean zehar auzoa girotzeko hainbat ekimen antolatzen ditugu, eta Auzo Eguna da horietako bat. Horregatik, auzotarrak parte hartzera animatu nahi ditugu.

Honakoa izango da helduen menua: urdaiazpikoa, olagarroa, txipiroia, txuleta, postrea, kafea eta kopa. Umeek, berriz, urdaiazpikoa, kroketak, txuleta eta izozkia jango dituzte. Helduen txartela 30 euro kostako da, eta haurrena, berriz, 15 euro. Tiketak

elkartean bertan izango dira salgai.

Zuzenketa

KARKARAKO LANTALDEA

Karkara aldizkariaren 453. zenbakian akatsa dago arrauari buruzko erreportajearen, 29. orrian. Bertan jartzen du Nadeth Agirrek liga bat eta hiru Kontxa dituela bere palmaresean, baina hori ez da zuzena: hiru liga eta hiru Kontxa ditu. Akats hori, gainera, kazetariarena izan da, eta ez gainerako datuak eman dituen Joxemari Olasagasti adituarena. ■■■

HILDAKOAK

- **Joan Lizaso Iruretagoiena.** Orion, irailaren 7an. 78 urte.
- **Paco Antonio Moreno. Orion,** irailaren 13an. 58 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARARA** bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



Bare Hertz Klinika: itsasoa bezain bare

Urriaren 2an zabaldu ditu ateak Bare Hertz Klinikak. Ianire Garcia zumaia irakurri du, Orioko Arrantzale kalean. Urteetako lan eskarmentua oriotarren eskura jarriko du, beti ere, pazienteak eta bezeroak "erdigunean jarrita".

Ondotologia egiteko filosofia batekin iritsi da Bare Hertz Klinika. Izan ere, Ianire Garcia ustez, gaur egungo odontologia "azkarra eta bezeroan zentratu gabekoa da". Hala, betidanik izan du garbi bezeroak egon behar duela "erdigunean".

Ianireren esanetan, lana ondo egitea ezinbestekoa da, eta horretarako lasaitasuna behar da: "Izan ere, ondo egiten badugu lana, kalmaz egiten badugu, kalitatea eskainiko dugu, kantitatearen ordeztu". Horrela, slow filosofian oinarritutako odontologia eskainiko du Bare Hertz Klinikak. "Slow odontologiari esker, pazienteak itsaso bare batean bezala sentiarazten saiatuko gara. Hortik dator, hain zuzen ere, hertz klinikaren izena".

2009an lizentziatu zen Ianire Garcia odontologian, eta ondoren, Donostian aritu zen lanean. Jarraian, klinika familiar batean hasi zen, eta bederatzi urte egin zituen bertan. Ibilbide profesional horretan asko ikasi zuela onartu du zumaia irakurri, eta, orain, ikasitako hori guztia praktikan jarriko du Bare.

Proiektu pertsonala abian jartzerakoan, etxetik gertu eta identifikatuta sentituko zatekeen proiektua izan behar zuela azaldu du: "Argi neukan herri txikiren batean behar zuela izan, herritarrengandik gertukoa, eta Orioko aukera azaldu zenean, erabakia hartzea erraza izan zen: une perfektua zen arlo

pertsonalean zein profesionalean. Gainera, Orio bezalako herri batean, agian, ez da horren ohikoa guk eskainiko ditugun tratamenduak eskaintzea, eta plus bat izan daiteke".

Gaur egungo teknika berrienak erabiliko ditu Bare Hertz Klinikak: implanteak, ortodontzia ikusezinak... Zerbitzu osoak, hasieratik bukaerara arteko prozesu osoa, adin guztiei, eta pertsona guztiei bideratuta. Gainera, tratamenduak finantzatzeko aukera ere eskainiko du. "Ez egin dudarik, eta deitu hitzordua eskatzeko! Laguntzeko gaude!".

Ianire Garcia: "*Slow* odontologia, inklusibitatea eta ongizatea dira Bare Hertz Klinikaren oinarriak"

Bare Hertz Klinikako lantaldea osatu duzu?

Aurrez klinika bat izandakoa da lekua, edo zentroa, eta nirekin hartu dut lanean bertan laguntzaile eta administrari gisa zegoen langilea. Bera Esti da, eta herritarra da gainera. Proiektua azaldu nionean, asko gustatu zitzaion, eta batzea erabaki du. Hala, beti egongo garenak biok izango gara, eta gero, paziente bakoitzaren beharren arabera ekarriko ditugu espezialista bakoitza. Lantalde finkoa izango da: beti aurpegi berdina ikusiko dituzte bezeroek, Esti eta biok, eta kirurgiak eta ortodontziak egitera etorriko diren espezialistak ere beti berdina izango dira.

Anestesista zerbitzua ere eskainiko al duzue espezialista horien artean?

Bai, anestesista baten kolaborazioa izateko aukera dugu Baren. Batez ere fobia dutenentzat edota dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako oso interesgarria da. Hala ere, lasaitasuna eta fobia lantzeko modu desberdinak daude egunerokotasunean: aromaterapia, musika, zaku beroak... Goxotasunean zentratuko gara egunerokotasunean, umeetan batik bat, beldurra duten umeak gogoz itzul daitezten. Hala, eta besteak beste, tableta jarriko diegu, marrazki bizidun gustukoenekin.

Umeentzat zerbitzu gehiago izango dituzue?

PADI zerbitzua (Haurren Hortzak Zaintzeko Programa) ere eskainiko dugu. PADI zerbitzua 7 eta 15 urte bitarteko haurrentzat izan arren, komenigarria da haurrak 2 edo 3 urtetatik klinikara etortzen hasia. Are gehiago adin horietan, etorkizuneko arazo asko aurreikusi ditzakegulako. Funtzio neurobegetatiboak lantzen ditugu Baren; listua nola tragatzen den, arnasa sudurretik hartzen ikastea, eta mastekatzeak nolako izan behar duen. Etorkizunean ere, posturan asko eragingo dielako, gaixotasun asko ekidin daitezkeelako, eta garrantzia handia ematen diogu horri guztiari. Ortodontzia asko ekidin ditzakegu, eta muskulu-eskeletikoa ere ondo egoteko oso funtsezkoa da.

Materialetan ere bereizgarririk izango al duzue?

Hori da. Eta hortik doa odontologia biologikoa, material biobateragarriaren erabilpenarekin. Gaur egun, jaten ditugun elikagaiak kontaminatuak daude, eta ingurugiroaren kontzientzia horretan, odontologian ere kontuan hartu behar da material mota desberdinak daudela, eta kalitate desberdinetakoak. Horregatik, enpasteak egiten ditugunean ez da berdina material bat edo bestea erabili. Adibidez, zilarrezko enpasteak egitea debekatuta du OMEk (Osasunaren Mundu Erakundeak). Zilarrezko enpaste horiek aleazioak dira azken finean eta merkurioa dute, eta horiek kentzeko protokoloak ezarri ditugu Baren, estrakzioak egiterakoan baporeak ekiditeko.

Beraz, Bare Hertz Klinikaren oinarriak *slow* odontologia, inklusibitatea eta ongizatea direla esan daiteke, beraz.

Bai, hiru horiek dira oinarriak. Izan ere, gorputza orokorrean aztertu behar da: ez da ahoa alde batetik, gorputza bestetik. Emozioek ere eragin handia dute, azkenean sabeleko miña badugu, emozioengatik izan daiteke. Ahoan ere gauza bera gertatzen da: ahoa sarri garbitzen duenak enpasteak izan ditzake eta pertsona horiek ezin dute ulertu enpasteak izatea. Kasu horietan kontziente izan behar gara sistema orokorra dugula gorputzean. ■■■



BARE

HORTZ KLINIKA

- 📍 Arrantzale 63, behea
- ☎ 943-29 06 19 eta 639 44 52 34
- 📱 @bare.hortzklinika



www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa

05



Webguneak eta
marketin
digitala

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

B

K

eto



KH

hnt

ZH

003 zenbakia izan nintzenekoa



ARITZ PARDINA

Irakurzale gehienok liburuak neurririk gabe erosten ditugu; askotan, irakurriko ez ditugula jakinda ere bai. Hala, etxeko apalategia konturatzerako betetzen zaigu. Bada, jada liburuak zutik sartzen ez direnean eta, etxeko liburutegian ez ezik, sofan, sukaldean eta komunean ere pilatzen hasten zaizkigunean, garaia izaten da horietako batzuk saltzeko edota dohaintzan emateko.

Gaur egun aukera franko ditugu liburuak saltzeko. Nik, esaterako, sarritan jo izan dut bigarren eskuko salmentarako web orrietara. Oro har, herriko posta-zerbitzu bulegoan egiten ditut bidalketak, edo, asko jota, Zarauzkoan. Hori bai, biek ala biek berdin egiten dute lan: bezeroak zuzenean jo behar du erakusmahaira, langilearekin operazioa gauzatu dezan. Aurreko batean, ordea, frogatu nuen normaltzat jotzen dugun hori ez dela herri txikietako bizilagunon abantaila baino.

Izan ere, duela aste batzuk, Platonen liburu bat saldu nuela-eta (ez da broma), Donostiako Correos bulegoetako batean egin nuen bidalketa, hala komeni zitzaidalako. Goizeko lehen ordua zen. Sano-sano, bulego hutsean aurrera egin nuen, mostradoreraino. Erakusmahaien beste aldean zeuden bi langileak lasai bazeuden ere, ez zidaten jaramonik egin. Une deserosoa izan zen. Bulego hutsaren erdian bainengoen, bietatik nork atendituko zain, ez atzera ez aurrera, paketea eskuan, harik eta laugarren salmahaiko langileak galdetu zidan arte "Tiketrik hartu al duzu?". Nik, ezetz. Jarraian, begiekin makina seinalatu zidan. Aparatuak, berriz, burutu nahi nuen operazioa zehazteko eskatu zidan. Bidalketa aukeratu nuen. Momentuan bertan, gainaldean nuen telebistak *piiii* egin zuen. 003 tiketa, 2. mostradorera.

Ondo dakit bulego horietan ez dela giro izango zenbait ordutan, sistema hori ezarri badute, izango dituztela euren arrazoiak. Dena dela, kezkagarria deritzot giza harreman xaloenak makinaren esku uzteko dugun ohiturari, beharrezkoa ez den uneetan ere. Nire iritziz, ahal den neurrian, profitatu egin beharko genuke pertsonekin zuzenean aritzeko aukera oro. Era horretara, bide batez, egoera absurdo bat edo beste saihestuko genuke.

Oroz gain, pasadizo horrek ezin hobe erakusten du ohiko bizitzan, gutxi-asko, gizatasuna galtzen ari garela. Adibidez, ni neu, tiket-makina hori erabilia, jada ez nintzen, demagun, Mirenengana jo zuen Aritz, baizik eta 2. salmahaia jo zuen 003 zenbakia. Badirudi makinaren galbaheari ihes egitea geroz eta zailagoa dela, are gehiago kontuan izanda hainbatek giza harremanak salduko lituzkeela erosotasunaren truke. Horregatik, bi gauza bakarrik desira ditut: batetik, jendeak Platonen gaineko interesari eustea; bestetik, Orion edo Zarautzen bidalketaren bat egin nahi dudanean, aukera izatea pertsonekin era naturalean eta zuzenean aritzeko, orain arte bezala. ■■■■

**KEZKAGARRIA
DERITZOT GIZA
HARREMANAK
MAKINEN
ESKU UZTEARI**

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA *Orio*



943 89 92 43 / kaixo@zaragueta.eus
www.zaragueta.eus

**BODEGA
KATXIÑA**

Ortzaika, 20 · ORIO
943-58 01 66 · 606 36 76 93
www.bodegakatxina.com · f i

**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

**ZINKU
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

bertako
Igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua
100€-tik/hileko



**Igogailuen mantentze-lanen
eskaintza zorrotzeta**

+2.000 bezerak gudan dute konfiantza
943 903 450 bertako.eus

IZARRA ELEKTROGAILUAK

**TOP21
Tien21**

**JARRAITU
@izarraelektrogailuak**

499€ <<<

379€ >>>

199€ <<<

499€

549€

**ZURE
KONFIANTZAZKO
DENDA**

**BETI
ZUREKIN!**

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa) · izarraelectrodomesticos@gmail.com

Neguko ordu aldaketak eragiten al dizu?



MILA URDANGARIN

"Nik uste dut nigan eragin izaten duela ordu aldaketak. Udazkenean eta neguan lehenago iluntzen du, eta iluntzetan lehenago erretiratzeko ohitura izaten dugu. Nik neuk askoz nahiago dut udako ordutegia, arratsaldeetan argi ordu gehiago izaten direlako. Urte askotan taberna izan nuen, eta aldaketa handia antzematen nuen batetik bestera jendearen ohituretan. Negua tristeagoa izaten da, eta udaberria iristen denean beste bizi-poz bat nabaritzen da, terrazetan biltzen gara eta jendeak kalean egoteko gogoia izaten du. Duela ez asko komentatu zen aurrerantzean ordu aldaketarik ez zela izango ere: neguko edo udako ordutegia aukeratu beharko balitz, nik, zalantzarik gabe, bigarren aukeratuko nuke".



JUAN JOSE OLIDEN

"Egia esan, ordu aldaketak niri ez dit gehiegi eragiten, erretiratuta nago eta. Lanean nenbilenean desberdina zen. Goizeko txandan lan egiten nuen: 06:00etan sartzen nintzen, eta 15:00 inguruan iristen nintzen etxera. Hala, neguko ordutegian eguna nahiko motza egiten zitzaidan, segituan iluntzen zuela iruditzen zitzaidalako. Orain, berriz, eguna aprobetxatzen dut nahi dudaz bezala. Dena dela, bada jendea asko eragiten diona; negu partean, esaterako, arratsaldean jendea lehenago joaten da etxera, eta mugimendu gutxiago nabaritzen da kalean; batez ere haur eta guraso gutxiago ibiltzen dira. Bere garaian esan zuten ordu aldaketa gehiagorik ez zela izango, baina gai hori ez da gehiegi aipatzen azkenaldian. Ez dakit zertan geratu den".



ANA MARI ARRUTI

"Nik neuk nahiago dut udako ordutegia, beranduago iluntzen duenez, arratsaldea gehiago aprobetxatzen dela iruditzen zaidalako. Gainera, egunak argi ordu gutxiago izateak herritarron animoan ere eragina izaten duela iruditzen zait, tristura sortzen baitu iluntasunak. Kaleko mugimendua ere apaldu egiten da; jendeak neguan lehenago erretiratzeko ohitura izaten du, eta askotan 19:00etatik aurrera oso jende gutxi ibiltzen da, eta 20:00 inguruan dendak itxen dituztenean, berriz, inor ez. Agintariek ordu aldaketaren arrazoia argi-indarra aurrezteko dela esaten dute, baina niri ez zait iruditzen aldaketa dagoenik, goizean jaiki eta ilun egoten delako, eta arratsaldean 17:30erako ere iluntzen hasten duelako".



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUAK BAKARRIK ESKAINTZEN DIZU ZERBITZU INTEGRALA

- Beilatokia eta errausketa-labea instalazio berean
- Areto intimo eta argitsuak
- Eraikin berria, modernoa eta eraginkorra
- Profesional berberak

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.

943 894 937 / 943 422 129 (24h) | memora.es
Abendaño Kalea, 2 – Zarautz

m **memora**
Zarauz
Hileta
Zerbitzuak

"Gauzarik politenak dituk unerik zailenetan familiakoek eman dizkidaten besarkadak"

UNAI MANTEROLA APAIZA

Aldapa elkartean izan da bi lagunene arteko zita, Unairen lantokitik bertan. Apaizarekin bazkaltzearen abantailak, herritar batek oparitutako arraina jan dugu. Txukun prestatu du; pixkanaka ari da ikasten. Kafearekin hasi gara galdezka; Unai soberan ditu karakterra eta karaktereak.

Testua: **Jon Agirresarobe**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

San Pedro egunez, Andatzako San Pedro ermitan eta Orioko elizan iragarri huen urritik aurrera Donostiako Artzain Ona katedralean ariko haizela. Lau hilabete agurtzen, alajaina.

Kalera atera eta ia egunero jaso diat maitasun hitza edo keinua. Sei urterako etorri ninduan eta hemezortzi pasa dituk. Herritarrak eskertua zirudik; baita nik ere oriotarren eta aiarren tratuarekin, babesarekin eta esker onarekin.

Sei urterako kontratuak sinatzen dituzue, hortaz. Gotzainarena zer izaten duk, proposamena edo erabakia?

Elizan, ardurak proposatzerakoan, sei urteko formula juridiko-kanonikoa erabiltzen duk: sei urte horietan gotzainak ezin dik apaiza beste norabait mugitu apaizak nahi ez badu.

Hemezortzi urteotan proposamenen bat izan diat, baina ez duk gauzatzeri iritsi. Azken honetan apirilean deitu nindian gotzainak Donostiara bazkaltzera. Segituan usaindu nian zerbait bazetorrela. Ni ez nengoan Oriotik ateratzeko

desiratzen, baina apaiz lagunek ere esaten zidaten ez nintzela Orion hilko. Azken batean, Gipuzkoan ehun apaiz bagaude, dozena bat izango gaituk gure destinoan urte dezente daramatzagunak.

Despedidaz eta honek dakartzan emozioez ari gaituk, baina Donostiara hola, ez Afrikara misiotan.

Pertsona hunkibera nauk, hala duk hori. Baina ez duk gutxiagorako: oso gustura egon nauk Orion eta Aian. Eliz lanetarako talde oso ona izan diat, laguntzaile leial eta finekin, onak eta elkar osatzen dutenak, eliza asko maite dutenak, sormen handikoak, langileak... eta semea edo anaia bezala maite nautenak. Nik beti esaten diet ni patroia naizela, baina armadoreak, baporearen jabeak, beraiek. Eskatzen diedan bakarra duk ni maitatu eta lagundu nauten adina maitatzea nire ordezkia.

Orion bizitza sozial gehiago izan diat, baina Aiako gazte askorekin ere harreman oso ona diat gaurdaino. Uztarketa horrek asko balio dik. Konturatzen nauk hirian dena hotzagoa izango





Orioko parrokiako kideek agur afaria egin zioten Unai Manterolari. UTZITAKOA



2022ko Karmengo Amabirjinaren prozesioko irudia. KARKARA

dela, ez baitiat hainbeste jende ezagutzen. Baina aldaketa honek eragin dezala nigan, jendea ezagutu gabe berdin saiatzea.

Egin dezagun denboran atzera. Zer pentsatu huen Uriartek Orio eta Aia aipatutakoan?

Hamar bat egun lehenago, hiru apaizgai Oriora etorri gintuan kafea hartzera, Igeldotik barrena, Mendizorrotz eta Kalonge itxita zeudelako. Gogoan diat kafea hartu genuela Aterpen. Maiatza huen eta baporek zeudean moilan. Halakoetan aita zena etorri ohi zaidak burura; oraindik ere bai. Halaxe esan nieran lagunei: "Hona etorriko nindukek gustura". Handik astebetera, Uriarte gotzainaren etxera joan ninduan, nora joan behar nuen jakitera. Honelako zerbait esan zidaan: "Potxolo, badekot zuretzako tokixe. Orio eta Aia, eta gero badago toki bat oso polita: Laurgain". Uriarteren portalera jaitsi eta amari deitu nioan. Amarentzat eta anai-arrebontzat Orio oso toki maitea duk, aita hamahiru urtez aritu baitzuan Orion *motorista*, hilabete batzuk San Antonion eta dozena bat urte Kantabrikan.

Andresen ordezkio izatea ez huen lan erreza, gizon estimatua huen Orion.

Aiako kasuan desberdina izan duk. Ehundaka urteren ondoren, bertan bizi izan ez den lehenengo apaiza izan nauk. Orioko parrokoen katean, berriz, gauza bitxia gertatu duk: ez dituk jenio biziko bi apaiz segidan egokitu, zorrotzaren atzetik lasaia tokatu duk hurrengo. Nik ez nian ezagutu, baina egoskor fama zian Migel Mujika hondarribiarrak, gerra garaiko parrokoak, Oriok Kontxa irabazita kanpaiak jotzen uzten ez zuenak. Ni ez nauk hain zumaiarra izan horretan. Goxoa eta maitagarria huen haren atzetik Orion izan zen Jose Maria Astigarra zumaiarra. Ondoren, Don Bitorio Unzetabarrenetxea, zorrotza inor zorrotza baldin bada. Gerora, Andres Garmendia, gizon goxo-goxoa eta plazagizon apala. Andresek 25 urte egin zitian eta itzal handia utzi zian. Askok ikasi nian harengandik elkarrekin egon ginen urte eta erdian. Niri tokatu zaidak hainbat erabakitan gogorxeagoa izatea. Orain, gizon goxo eta apala zetorrek berriz ere.

Meza laburragoak izan hituan hire aurkezpen karta.

Gerora, hirugarrenek ere goraiatu izan ditek hire komunikaziorako eta kantarako gaitasuna.

Komunikazioan ez nauk aditua, aritua baizik. Baina niretzat ezinbestekoa duk mezu gutxi baina zuzen ematea. Niri ez zaidak gustatzen luzatzea: laugarren minututik aurrera arreta eten egiten duk. Zinez saiatu nauk aurrean nor dudana ulertzen saiatzen. Hiletatan, bereziki. Bestearen praktetan jartzen. Tokatu zaizkidak aldarte zailak, oso zailak: bere buruaz beste egin duten herritarren ingurukoekin egotea; erailak; familia horientzat guztientzat laztan goxo bat izaten saiatu nauk. Hori duk, niretzat, mundu honetan egoteko arrazoi nagusia. Besteentzat laztan bat izan. Noizbait asmatu ez badut, barkamena eskatzen zieat hala sumatu ez nautenei.

Eta mahai buelta aipatuta, herrian zeresana sortu zian apaiz festazalea izateak.

Pentsa, 26 urte Orion bete nizkian! Zer nahi duk festazalea ez bada! Bertsozalea izanik, herriko bertso eskolakoak ezagutu zintuztedan aurrea, eta Orio ezagutzeko talde ona izan zarete. Parranda asko egin diagu, baina herritarrek behar izan nauten guztietan behar zen lekuan egon nauk. Jendearekin egotea nire lanaren parte dela sinesten diat: enpresari batekin bazkaldu eta afaritarako ezer ez daukan bikote bat etxean hartzea. Denekin egoteko gaitasuna behar diagu, eta askotariko jendearekin egoten naizela uste



**"APIRILEAN DEITU NINDIAN
GOTZAINAK DONOSTIARA
BAZKALTZERA. SEGITUAN USAINDU
NIAN ZERBAIT BAZETORRELA"**

**"ORAIN JENDE GUTXIAGO ZETORREK
ELIZARA, BAINA DATORRENA
BENETAN ETORRI NAHI DUELAKO
ZETORREK"**

**"GOTZAINARI ESAN NIOAN JUAN
PABLO ZELA ORIORAKO EGOKIA:
UMILA, LANGILEA, ZERBITZAILEA,
JATORRA..."**

diat, bi herrietan. Familiako kide bat galdu berri duten etxe askotan izan nauk. Alegia, apaizgintza hala bizi dudalako, zailtasunean egotea tokatu zaidak, ez parrandan bakarrik. Eta bai, Orion eta Aian festa asko eta asko egin diat, asko gozatu diat. Baina bi herriotatik daramatzadan gauzarik politenak unerik zailenetan familiakoek eman dizkidaten besarkadak dituk. Ez zegok hegaluzerik eta antxoarik hori ordaintzeko.

Sakramentuak banaka aztertuta: hiletan erosoago ikusi izan haut ezkontzan baino.

Ez nauk ezkontza zalea. Askotan sentsazioa izan diat jende askok elizan ezkondu nahi duela leku polita delako edo amonari ilusioa egiten diolako. Folklore, apaingarri eta txorakeria askoko egunak izaten dituk. Errespetatzen ditiat, noski. Hiletak txukun egitea obsesio diat, zentzu onean, parean dudanaren tokian jartzen saiatzen naizelako. Hiletan dena duk egia. Ezagutzen edo maite duan pertsona bat agurtzen ari haizelako, eta agur hori neurri batean hire esku egoteak ematen ziozk zentzua gure lanari. Ardura hori maitasuna duk eta hortik ezagutzen duk jendea.

Orion eta Aian oraindik ere familia mordoxxkak aukeratzetik haurrak bataiatu edo komunioa egitea. Apaiz baten curriculumean zenbateraino dituk garrantzitsuak zenbaki horiek?

Ez dituk garrantzitsuak. Inork ez ziguk konturik eskatzen. Nik balioa ematen zioat etortzen direnak gustura etortzeari. 2007. urtean 49 ume bataiatu nitian, aurtan ez zekiat dozenara iritsiko diren. Soziologikoki aldaketa zetorrean eta pandemiak dena azkartu dik. Hileta kopurua ere jaitsi duk: hemen ez asko, baina hirian izugarri. Uste diat hasi garela bakoitzaren fedearan eta bizitzaren araberako ongietorriak eta agurrak egiten. Lehen jendea ez zuan ausartzen hiletarik ez egitera, jendearen zeresanen eta hitzen beldur. Aldaketa ona duk: orain jende gutxiago zetorrek elizara, baina datorrena benetan etorri nahi duelako zetorrek.

Askotan erabaki gogorrrak hartu dituk. Alarma egoeran, esaterako: kultuko zentroak irekita mantentzeko baimena ematen zian Sanchezen dekretoak, baina eliza ixtea erabaki huen. Zirt-zart erabakia, eskuak dar-dar egin gabe.

Fatxada gogorreko pertsona nauk, erabakiak ondo edo gaizki hartzea kostatzen ez zaiona. Baina, aldi berean, hunkibera eta kaltebera nauk, gerora izaten diat zer pentsatua erabakiarekin eta hitz egiteko moduarekin. "Hobe hori esan ez banio, goxoago esan banio..." Jenio bizikoa nauk, nire

izateko era duk. Eta ez nauk munduko sinpatikoena. Baina gertutik ezagutzen nautenek bazekitek umoretsua eta bihotz onekoa naizela.

Egoera latza eta berria izan huen pandemia, gobernu agintarien ezjakintasuna... Herritarrok jarri gintuzten erabaki latz batzuen aurrean — gaur egun hartuko ez liratekeen erabakiak, bide batez esanda—. Nik larunbatean hartu nuen eliza ixteko erabakia. Astelehenerako denak itxita zeuden Gipuzkoan.

Nola gogoratzen dituk egun haiek?

Hilerrira igo eta agurrean familiako hiru bakarrik egotea zuan gogorrena. Ibai Esoain laguna zuan lurperatzailea eta hari aipatu nioan: "Dekretuak hiru agintzen dik, baina hil denak bikotea eta lau seme-alaba baldin baditu? Utzi egin behar zieagu". Ibaik nire esku utzi zian erabakia. Gauzak horrela, lehen hiletan hiru bakarrik egon gintuan eta damu handia zeukat: legea bete genian baina ez gure lana. Hurrengoetan lau, bost edo sei baimentzen genitian, ez berrogeita hamar, noski.

Pandemiak ospea ere ekarri zian: EITBk Orioko parrokiatik eskaini zitian garai hartako mezak.

Euskadi Irratian hasia nengoan ordurako, lau-bost urte badituk igandero goizeko zazpiak eta erdietan meza ematen dugula Marixabel Oliden, Pili Oliden eta Maria Jesus Odriozolarekin, aurrez grabatuta. Aldi berean, telebistako lehen kateko mezen zuzendari lanetan ari nauk azken hamar urteetan, Mungiatik Altzürüküra arteko mezak lotzen. Baina pandemian etxe handiak —EITBk— esan ziguan ezin genuela herriz herri ibili, toki bat hartzeko, eta Orio aukeratu nian. Laukote batek grabatzen genian meza kaperan. 20 igande ospatu genizkian hemen. Izugarria izan zuan Euskal Herri osotik izandako deiak, mezuak, kartak... Gaur duk eguna, Euskal Herriko leku askotan ezagutu egiten nautena, eta eskertu. Bermeon kalean gelditu ninduten "*Es el cura de ETB*" esanez. Elgoibarko gazte batek selfie bat eskatu zidan, amonari bidaltzeko. Lana izan zuan, baina jasotakoa hirukoitza izan duk. Jesusek esaten dik poz handiagoa dagoela ematean hartzean baino. Nire bizitzako lema bihurtu duk.

Lanean isilik ez, baina isileko lanean aritzen zarete. Caritasen baduk lanik.

Duela hamalau urte inguru detektatu genian Orioko eta Aiako herritarrek janaria behar zutela. Lehen lan-modua izan zuan geuk erosketa egitea eta banatzea. Gerora, elikagaien bankutik janaria ekartzen genian, Joanito Orella zenaren laguntzarekin eta etxeko hainbat laguntzailerekin.

Beharra handitzen ari huen, nabarmen. Duela lau urte baino gehixeago aldatu hituen ongizate teknikariak eta gaur da eguna beharra duten familien zerrenda berek egiten dutena. Harreman eta koordinazio oso ona zeukaagu Caritasek eta udaleko ongizate sailak. Baina bolumena handitu zitzaigun eta Joxemari Gozategiren kotxea ez huen aski. Arraun Elkartearekin hitz egin nian eta, ordutik, Joxe Antonio Gutierrez *Kakio* etortzen duk gidari klubeko furgonetarekin. Elkarteen elkarlana zoragarria duk Orion behar dutenei laguntzeko orduan.

Apaiz kopurua nabarmen ari duk jaisten. Laguntzaileak aipatu dituk lehen, aurki ikusiko dizkiagu meza ematen.

Gipuzkoako Elizbarrutiko Gobernu Kontseiluko kide nauk eta gai hau lantzea tokatu zaiguk aspaldi. Aurki herri guztietan ez duk igandero meza egongo. Nik pozik esan zezakeat bi herrietan oso talde prestatua uzten dudala, igande batean apaizik ez bada eliza zabaldu eta ospakizunak egiteko.

Munillarekin bikario izan haiz, liturgia arduradun.

Fernando Prado gotzain berriarekin zein ardura izango duk katedralean?

Lehengo ardurekin jarraitzen diat: Donostiako Elizabarrutian gotzainaren itzulpenez arduratzen nauk, Euskal Herriko —Baionako, Iruñeko, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako— itzulpen taldearen koordinatzailea nauk, elizbarrutietako musika sortzaileen koordinatzaile ere bai. ETBko eta Euskadi Irratiko mezaren ardura ere badiat. Ardura horiez gain, gotzain berriak Artzain Onaren katedralean zenbait gauza aldatu nahi ditik: euskaraz meza eskaintzea eta eguneroko jarduna euskalduntzea, lehen gauza. Uda sasoian frantsesez eta ingelesez ere eman beharko diagu mezaren bat; nik ez diat emango, baina bilatuko diagu baten bat. Horrez gain, Artzain Onaren katedralak kulturgune izan behar dik: egunero-egunero jende andana pasatzen duk bertatik eta inork ez ziek kasurik egiten. Ea asmatzen dugun kontzertuak eta bestelako jarduera kulturalak sustatzen.

Goxatu al duk apaizen arteko giroa? Munillarekin etena izan duzue eta eragina izan dik zuen harremanean. Inor ez zeundeten ados izendapenean, herori ere ez, baina bi bide oso ezberdin hartu dituzue: askok kontra jarraitu zitean, beste zenbaitzuk ardura postuak hartu zenituzten. Urte zailak izan dituk, ezta?

Munilla ez etortzeko borrokan parte hartu nian. Ez diat arazorik aitortzeko, berari ere askotan aitortu izan diodalako. Behin etorrita, borroka



amaitu zela sentitu nian, eta denon artean eliza eraikitzen saiatu behar genuela. Beste apaiz batzuekin batera bikario postua onartu egin nian. Munillarekin mila eztabaida ideologiko izan ditiat, mila, baina pertsonalki ondo moldatu gaituk. Fernando Pradorekin, berriz, zazpi-zortzi urte dituk lagunak garela; orain adiskidetasuna eta lana bereizten nahikoa lan izango diagu, laguna eta gotzaina baituk aldi berean.

Elizak hartutako erabaki guztiekin ez haiz ados egon. Publikoki ere salatu izan duk zenbait erabaki eta gertakarik sortutako mina. Baina hagoen lekuan hi haiz elizaren irudi.

Elizan gauza lotsagarriak ditiagu gurekin: pederastia kasu pila bat, matxismo egonkortu eta zabaldua. Lotsagorritzeko gauza asko ditiagu. Ordaindu behar dik elizak, baina ezer behar izatekotan, barrutik baino egin ezin den sakoneko aldaketa behar dik. Barrutik aldatzeko hautua egin diagu batzuek. Elizak gauza itsusiak baditik, baina onena ere berak eman zidak: Jainkoa ezagutzea eta haren arabera bizitzen saiatzea.

Zer esan dezakek Juan Pablo Aroztegiren inguruan?

Kasualitate batek batu gintian: Zumaiaiko parrokoa kotxe istripuz hil zuan eta Zumaiaiko parrokiaren administratzaile lanetan aritu ninduan tarte batean, 2018ko udan. Apaiz egin

berria zuan Juan Pablo (35 urterekin) eta bera izendatu ziaten Zumaiaiko parroko. Bigarren aldia duk, beraz, parrokia bat (edo bi) haren eskuetan uzten dudala. Ordutik lagunak gaituk. Bi urteren ondoren seminariora joan zuan hezitzaile, eta han egon duk hiru urte. Gotzainari esan nioan Juan Pablo zela Oriorako egokia: umila, langilea, zerbitzailea, jatorra... Ingeniari industrialak duk ikasketaz, nahiz eta informatikan aritu den gehien, eta 30 urte bete eta gero apaiz ikasten hasia. Nire babes guztia izango dik, hartzen dituen erabakiak gustatu ala ez. Oriora soziedadara, kalera eta jende artera etorriko nauk; elizara ahalik eta gutxien. Ez zioat itzalik egin behar.

Bost Kontxako bandera bedeinkatuta hoa. Orion gutxitxo, baina, zumaiair batentzat, aspaldian izan ez zuen betekada.

Gipuzkoako kostaldeko herrietan antzik gehiena duten herriak dituk Orio eta Zumaia, etengabe nortasuna markatzen egon behar duten herriak. Esaterako, debarrak edo getariarrak ez ditiagu entzungo beti nondarrak diren gogorarazten. 18 urte egin ditiat zumaiairra naizela esanez eta Orio maitatuz. Pentsatzen ari nauk Donostiako moilan Orioko kamiseta jantziko dudala 2024ko Kontxan.



1

Bi pertsona, bi lagun,
bi izar hauts bizigai
gure fede guztien
gogo elikagai
Bi silabatan erraz
esan arren noiznahi
izen handiak dira
Nadeth eta Unai.

2

Kronometroa eta
Nadethen brujula
haize indartsu edo
korronte ahula
Berria da Orio
utziko duzula
baina Oriok ez zaitu
utziko sekula

Doinua:

Balearen doinua.

Nadeth Agirre

**"ARRAUNAK EMAN DIT UNAI EZAGUTZEKO AUKERA. ASKOTAN BARKATU DIZKIT,
GAINERA, ESTROPADETAN ERABILITAKO HITZ ITSUSIAK ETA TENPLE TXARRA.
ARRAUNARI ESKER, HARREMAN POLITA SORTU DA GURE ARTEAN. ORAIN
DONOSTIARA BALDIN BADOA ERE, ZIUR ELKAR IKUSTEN JARRAITUKO DUGULA"**

3

Unai faltako zaigu
Orion ta Aian
lagun arte giroan
festan eta jaian
Artzain onak ardia
zaintzen du zelaian
etorri behar eta
nahi duzun garaian

4

Sotana eta platano
ho(r)ien sinergiak
fedez piztu dituzte
igande eguerdiak
Disfrutatzea opa
dizue herriak
orain datozkizuen
olatu berriak

Bertsolaria:
Xabier Sukia.

Unai Manterola

"NIRE AGURRA ETA BERE AGURRA BATERA IZATEA POZGARRIA DA. BETIERE ELKARREKIKO DUGUN LAGUNTASUN HORRETATIK BEGIRATUTA. ASKO MIRESTEN DUT, ETA KARIÑO HANDIA DIOT. NADETH IZANGO DA ORIOKO ARRAUNAREN HISTORIAN OLIDENDARRAK, KORTA EDO MAILA HORRETAKO FIGURA BAT"

"Nire izateko moduagatik iritsi naiz jende askorengana"

NADETH AGIRRE ORIOKO TRAINERUKO PATROI OHIA

Kontxako bigarren igandeko estropada berezia izan zen Nadeth Agirrarentzat. Inork gutxi bazekien ere, bere ibilbideko azkena izan zen. Jardunaldia bukatu bezain pronto iragarri zuen arrauna utziko zuela, hamalau urtez Orioko emakumeen traineruko patroia izan ondoren.

Testua: **Aritz Mutiozabal** Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Erabakiak hartzea konplexua izaten da. Haizea aldeko nahiz kontrako, olatuak etsai ala lagun, korronteak autobide edo sastraka. Zenbat aldiz eta ze denbora tarte txikian marraztuko ote zuen Nadeth Agirrek (Orio, 1993) bere buruan ziaboga arteko lerroa, baita poparean egin beharreko itzulekoa ere, artean estatxari gogor eusten zion bitartean. Berriki hartu duen erabakia, ordea, ez da bat-bateko kontua izan, nahiz eta Kontxako Banderako bigarren jardunaldian iragarri zuen, zale askoren sorpresarako. Bazeraman denboralditxo bat arrauna utziko aukera kontuan hartuta zuela, eta nonbait, gainera, Orio Arraunketa Elkarteko batzordekideak eta bere gertukoak jakinaren gainean ere bazeuden. Belaunaldi aldaketa, urte gogorra, motibazio falta... Malkoak ihesten zaizkio herri honetako arraunaren historiak eman duen patroia onenetako bati. Ikur eta erreferente izan da, eta izango da. Buruak hartutako erabakia egokia dela esaten dio behin eta berriz, baina

bihotza kontrara matxinatzen zaio. Hunkituta dago, erabat hunkituta.

Agur hitza zein laburra den, eta zeinen zaila esateko.

Beno, nik agur esan dut, baina lasai esan dut. Pentsatu izan dut arrauna uztea beste urteren batean, baina agian zerbait falta zitzaidan. Hori pentsatu izan dudanetan oraindik lorpen handirik ez neukan. Beraz, nola utziko nuen, bada, horrenbeste urte hemen eman ondoren, Kontxa irabazi gabe eta trainerua uretara ateratzeko egiten genuen esfortzua kontuan izanda? Horrek ematen zidan pena. Baina, jada hiru bandera baditut. Bestalde, aurturteko gogorra egin zait, eta ez hori bakarrik, traineruko beteranoena neu nintzen. Konturatzen nintzen jende gaztea zegoela eta, beharbada, aldaketa batek egon behar zuela. Azkenean, horrek guztiak eraman nau erabakia hartzera. Alegia, nik neurea egin dut, lasai eta asetuta sentitzen naiz, eta iruditzen zait erretiroa hartzeko unea iritsi dela. Jakina, gogorra egiten da. Zaila da arraunean ez duzula jarraituko esatea eta zure bizimodua aldatzea, baina erabakia hartuta dago.





Kontxako bigarren igandean eman zenion zure erabakiaren berri arraun munduari. Hori da hori ezustea, ezta?

Ez zegoen nire planetan, egia esan. Ez nekien zein zen erabakiaren berri emateko momenturik onena. Klubeko jendeak bazekien, bai batzordekideek, bai entrenatzaileak nahiz prestatzaileak, baita nire ingurukoek ere, eta galdetzen zidan jendeari ere kontatzen nion, inolako erreparorik gabe. Baina talde osoari nola esan ez neukan pentsatuta. Kontxako estropadan ETBko kazetariak komentatu zidan ea nire jarraipenari buruz galdetzerik bazuen, eta baietz erantzun nion. Hortik sortu zen guztia. Ez dakit une eta toki egokiena zen, baina hala suertatu zen.

Taldekidetxak ere ez nien lehenago esan nahi izan, ez behintzat Kontxako estropada jokatu baino

lehen. Azkenean, oso motibatuta zaude estropada horretarako, eta horrelako albiste batek desorekatu egin zaitzake. Beraz, amaieran kontatu nien. Dena dela, jakin bazekiten antza, elkarrekin bazkaltzera joan ginenean niretzako bertso sorta bat prestatuta baitzeukaten agur modura.

Denboraldi hasieratik argi zeneukan azkena izango zela, ala estropadaz estropada joan zara pixkanaka erabakia hartzen?

Denboraldiari gustura ekin nion, baina egia da gero aldapan gora egin zitzaidala, apur bat gogorra. Negua ez da samurra izan, eta uda hasieran, denboraldia hastear zela, jada nire zalantzak

nituen; baina estropadak jokatzeko joan ahala, gero eta gehiago konbentzitu naiz aurtengoa zela azkena. Beraz, agur bat esan nahi izan diot, baina marruka.

Ez da gauza bera Aliron batekin zaleen aurrean agurtzea, edo denboraldi apal bat eginda joatea. Arantza hori geratu al zaizu?

Errezibimendu bakoitzean zera esaten nien neskei, eta nik neuk ere hala sentitzen nuen: "Hau gozatu behar dugu azkena izango balitz bezala". Lortu genuen azken bandera Galiziakoa izan zen, eta orduko errezibimenduaren eta gainerako guztien oroimen oso polita daukat. Esaten nien: "Banderarekin herrira iritsi eta dantza egingo dugu, *Aupa Orio!* oihukatuko dugu eta abar egingo dugu"; betiere, lortuko genukeen azken garaipena izango balitz bezala. Zentzu horretan, lasai nago, baina jakina gustatuko litzaidakeela Kontxa irabazi eta Aliron batekin biribiltzea nire ibilbidea. Baina, esan bezala, titulu aldetik nire lorpenak baditut, eta, beraz, horrek beste lasaitasun bat ematen dit.

Hamazazpi urte arraunari lotuta. Betidanik eduki al duzu arraunerako grina? Txikitatik izan nahi al zenuen arraunlari?

Egia esan, ez. Ni kasualitatez hasi nintzen arraunean. Nolabait ere, inertzia eta sortzen den laguntasun horrek bultzatu ninduen jarraitzera. Ez nuke esango hasieratik gustatzen zitzaidanik arrauneko dinamika, baina gero horrek lotzen zaitu pixka bat; hau da, zure bizitzaren planteamendua arraun denboraldiarekin



"NI JOANGO NAIZ, BESTE BAT ETORRIKO DA ETA SEGITUAN ALDATUKO DA IKUSPEGIA"

"UME BEZALA HASI NINTZEN ETA HELDUTASUNERA IRITSI NAIZ ARRAUNAREKIN"

"KONTXA ETA LIGA ESTREINAKOZ IRABAZI GENITUENEAN, EZ GINEN GEHIEGI OHARTU LORTUTAKOAZ"

uztartzera eramaten zaitu. Nik uste dut horrela egituratu dudala nire bizitza, eta dinamika horrekin gustura aritu naizela, horrek zekarren guztiarekin: entrenamenduak, alegia. Egun naizena arraunak eman didanetik sortu da, balio asko irakatsi dizkidalak: talde lana, jendea ezagutzeko aukera, norbere exijentzia maila eta abar.

Emakumeen trainerurik ez zegoen eta hutsetik abiatu zenuten, horrek zekarren ilusio, baina lan guztiarekin. Zer oroitzapen dituzu hastapen haien inguruan?

Hasiera hura gure ekimenez sortu zen. Garai hartan, Getaria-Zumaia hasi ziren trainerua ateratzen, eta gu aldi hartan jubenilak ginen, baina bageneukan ontzia osatzeko ilusio hori. Orio bezalako herri batean emakumeen trainerua osatu beharra ikusten genuen. Lehenago edo geroago iritsiko zela igartzen genuen. Beraz, gure aldetik sortu zen ekimena eta klubeko batzordeari proposatu genion ideia. Ondoren, elkarteak berak gorpuztu zuen proiektua, eta aurretik aritutako emakumeei dei egin zieten, nolabait trainerua osatzeko. Batzuk gurasoak ziren, eta gu, berriz, oso gazteak, beste ikuspegi batekin, gaztetako txoro haizearekin. Haiek beste heldutasun maila bat zuten, eta modu horretara, ekin genion taldeari eta lan dinamikari. Beraiegatik izan ez balitz, hau ez zen posible izango, eta, gehienbat, urte hauetan guztietan egon den jendeagatik. Arraunlari asko ibili da eta utzi du; jende askok ikasi du arraunean, batzuk hutsetik eta beste batzuek aspaldi landutako oinarri batetik. Gisa horretan ekin genion abentura honi, eta nik neure burua ikusten nuen helduei agintzen zien ume bat bezala. Nik ere hasieran ez nekien patroilana egiten traineruan, ikasi egin behar nuen, eta haiei ere akatsak zuzendu behar nizkien, baina era berean, harreman ona eduki behar nuen. Izan ere, helduen eta gazteen arteko zubi-lana nik egiten nuen. Ondorioz, gaur egun sekulako harremana dugu, eta elkartzen gara askotan.

Harrezkero, bizitza erdia baino gehiago pasatu duzu arraunari lotuta. Nola baloratuko zenuke oraintsu amaitu duzun estropada?

Ume bezala hasi nintzen, eta heldutasunera iritsi naiz arraunarekin. Orain taldean dauden gazteen ondoan ni neu naiz beterano hori, eta haien ilusioan islatuta ikusten naiz, baina oso ezberdina da. Gu sasoi horretan trainerua sortzeko bidean ari ginen, eta beraiek iritsi dira sortuta zegoen talde batera. Ibilbidea gorabeheratsua izan da. Azkenean, gizonezkoek hainbesteko indarra

duten klub batean, zaila izan da bidea. Beti mutilei eman zaie garrantzia, eta gu bigarren plano batean eduki gaituzte. Apurka-apurka, orde, baloratuak sentitu gara, eta emaitzak lortu ditugu, eta horrek ekarri du ikuspegi aldaketa bat, gehienbat jende helduaren aldetik. Gazteak ohituago daude, baina helduek hasieran ez zuten askorik sinesten gudan. "Hauek zer egingo dinat ba!", "Zertarako aterako dituen trainerua?" eta halakoak esaten zituzten. Orain egundoko ilusioz jarraitzen dute etxeko emakumeen trainerua.

Begiratu besterik ez dago zenbat lorpen erdietsi dituzuen. Hala ere, zure kasuan, nabarmentzekoa da hiruna Kontxa eta Liga dituzula. Azken hiruzpalau urteetan lortutakoak, gainera.

Emakumeen traineruan, gizonenarekin alderatuta, oinarriari dagokionez, jende kopuruan dago ezberdintasun handiena. Gizonezkoek A eta B taldeak dituzte, eta emakumeetan oraindik ez dago oinarri hori. Orain ari da aldaketa hori ematen eta jendea arraunera lotzen. Gu hasi ginenean ez geneukan erreferenterik Orion. Gure erreferenteak mutilak ziren: Kontxara joaten ginenean eta haiek irabazten zutenean, noizbait guk ere irabaziko ote genuen galdetzen genion geure buruari, eta orduan kadeteak ginen. Nik uste dut aldaketa handia eman dela ordutik hona.

Kontxa eta Liga estreinakoz irabazi genituenean ez ginen agian gehiegi ohartu lortutako balentriaz, baina atzera begira jarritako konturak zara bidea luzea izan zela. Hamar urte behar izan genituen zerbait lortzeko. Ondoren, urte politik izan ditugu, eta uste dut Orio gora ekarri dugula. Azken urteetan hor goian mantentzen ari gara, eta hori da taldearen helburua, nahiz eta aurten zaila izan den, gainerako klubak ere maila ona ematen ari direlako.

Erreferenteak aipatu dituzu. Ez dago zalantzarik, zu zeu ikur bat bazarela!

Nik zera komentatzen nuen lehenbizikoz Kontxa irabazitakoan: "Orain ez gara konturatzen zer lortu dugun, baina hemendik urte batzuetara ohartuko gara egindakoaz". Esan dezakegu, kalera begira, erreferente bat naizela, nire izena sarri entzuten delako, baina ez da ahaztu behar taldean ere jendea dagoela garaipen horiek lortzeko lana egin duena eta berdin-berdin baloratu behar dena. Egia da, baita ere, hamalau urtez jarraian aritu naizela traineruan, hasiera-hasieratik, sortu zenetik, eta horrek ere eragina daukala.

Zer garrantzitsua den emakumezkoen kirolean erreferenteak izatea. Nolabait esateko, zuk zeuk eta

zurekin batera erretiratu berri den Eli Pescador bezalako jendeak zenbat ate ireki dizkiezuen ondorengo belaunaldiei, ezta?

Bai, hala da. Garai hartan, mutilak ziren gure erreferenteak, eta gure ondorengoentzat, bada, gu geu izango gara. Segur aski arraunean dabilen gaztetxo askoren helburua izango da trainerura iritea. Alegia, arranplatik ikusi dituzten bandera horiek edo Alironetan ospatu dituzten une horiek bizi nahiko dituzte, zeren oriotarrentzat edota arraunlari batentzat kristorena da horrenbeste hilabetez lanean aritu ondoren sari hori izatea.

Batik bat, udako lan hori nonbait islatuta ikustea. **Zeuk nola ikasi zenuen patroigintza?**

Urteen poderioz ikasi dudala esango nuke. Ez diot ikasteari utzi, ezta azken urte honetan ere.

Entrenamenduetan joaten zara zailtzen, entrenatzaile bakoitzak zuzentzen dizu zerbait, eta urtez urte zuk zeuk ere zeure burua neurtzen duzu, konfiantza gehiago hartuz. Segurtasun gehiago hartzen duzu zure postuan, eta horrek ere beste lasaitasun bat ematen die arraunlari. Gauza asko ikasi ditut, baina oraindik ere ziur gehiago ikas nitzakeela.

Berezkoa izan behar du patroiak, ala norbaitek eman dizkizu ezinbesteko lezioak?

Nik uste dut berezkoa ere izan behar duela batek patroi izateko. Uretara ateratzen zarenean, hasiera batean, gehiago izaten da bista kontua; hau da, arraunlari postura aldetik zuzendu beharreko konturen bat edo beste. Hala ere, patroiak berezko lotsagabe puntu hori eduki behar du, baita ikasteko eta entzuteko gogoia ere. Patroi batzuk aritu dira, baina ez dute eman eskatzen den maila. Nik, horrenbeste urtez aritu ondoren, neure buruarengan konfiantza handia lortu dudala uste dut. Uretara irteten ginenean, argi neukan norbaitek kendu behar baldin baninduen nire postutik ez niola erraz utziko.

Baina nork agintzen du gehiago, entrenatzaileak ala patroiak?

Biek. Uste dut garrantzitsua dela harreman ona izatea entrenatzailearen eta patroiararen artean, eta elkarren artean benetako konfiantza izatea. Izan ere, uretan gauden momentuan hark gauza asko ikusten dituen bezala, nik ere gauza asko ikusten ditut. Berak *fuera* bordatik ikusten ditu, eta nik traineru barrutik, bai entrenamenduetan, bai estropadetan. Entrenatzaile ezberdinak izan ditut, eta une askotan utzi didate ni neu izaten; agintzen nire modura, baina betiere, bion ikuspuntuarekin eta elkarlanean, trainerua ahalik eta ondoen joan



dadin. Hala eta guztiz ere, esan dezakegu asko agindu dudala, entrenatzailearen gainetik asko jarri naizela, baina onartu egin dit.

Oso arraroa izango da estropada asteburua iritsi eta Nadeth traineru gainean aginduak ematen ez ikustea.

Niri ere arraroa egingo zait. Nire ibilbidearen amaierak iritsi behar zuen: ni joango naiz, beste bat etorriko da, eta segituan aldatuko da ikuspegia. Jendea berehala ohituko da patroï berrira. Egia da ni neu aritu naizela urte askoan eta nire izateko moduagatik jende askorengana iritsi naizela. Espero dut hurrengoak ere bide bera urratzea. Ni, behintzat, moilaren bestaldean egongo naiz zale bezala ikusten... Hori bai, akatsen bat ikusten badiot, esan egingo diot!

Erreleborik ba al dago?

Egia esan, ez dakit. Orain, momentu honetan, gazteetan ez dago. Ez dakit zer geratuko den. Klubean jakinaren gainean zeuden, baina ez dakit zer duten pentsatuta. Azken asteetan atsedean hartu dut, baina edozer gauzetarako laguntzeko prest izango naute, bai entrenamenduetarako, bai kanpoko lanetarako.

Hau behin betiko agurra da, ala gero arte bat?

Ez, ez, hau behin betiko agurra da. Baina edozein larrialditarako, norbait gaixotu dela eta,

entrenamenduetan laguntzeko prest izango naute. Nire ateak, behintzat, zabalik izango dituzte zentzu horretan.

Arrauna zainetan daramazu. Aurrera begira baduzu prestatzaile, entrenatzaile edo halakorik izateko gogorik?

Ez dut halakorik buruan. Pixka bat lasaiago hartu nahi dut, baita burua argitu ere. Aurrerantzean arrauna kanpotik jarraituko dut, eta noizbehinka entrenamenduak nola egiten dituzten ikustera gerturatuko naiz.

Eta aurrerantzean, zer?

Ezer berezirik ez. Gustatuko litzaidake kirola egiten jarraitzea, eta batez ere arraunak eman dizkidan dinamika horiek ez etetea.

Bereziki gogoan gordeko duzun estropada bat?

Orokortasunean hartuta, lortu genuen lehen Kontxa izan zen bereziena, eta denbora askoan esan dut nire bizitzako egunik politena izan zela. Egun horrek sortzen dizu urduritasun puntua, goizean goizetik hasita: estreinako bandera dela jakite hori; estropada bera; bandera jasotzeko unea eta, ondoren, arranplan zaleekin elkartzeko momentua; arratsaldean, herrian jasotako harrera... Hori guztia oso gogoan izango dut, eta ez zait inolaz ere ahaztuko. ■■■

Tradizioa, berrikuntzak eta esperantza



IÑAKI ITURAIN IITURAIN@GMAIL.COM

ARGAZKIAK: MARIJE INDO, JUAN ANJEL GARMENDIA, RAMON ERRASTI ETA KARKARA

Esperantza Getarikoa da, hango arraun taldea, eta traineruaren izena. Eta horixe izan dute azken urteotan Getariko arraunlari eta arraun-zaleek: esperantza, itxaropena. Jakin dute itxaroten, lanean: taldea osatzen eta pixkana hobetzen, aurrera begira.

Getariatik Oriora etorrira, eta arraunarekin segituz, horixe sumatzen da gurean ere: esperantza. Badaude arrazoiak horretarako. 2023ko udan, hori koloreko bi kuadrilla izan dira traineru liga nagusietan: bana nesketan eta mutiletan. Biek jokatu zuten Kontxako bigarren igandean, ohorezko txandan. Mutiletan, bigarren talde bat ere ibili da lehian, hirugarren mailan, oso mutil gazteek osatua, eta bat ez beste estropada guztietan nagusitu dira. Adin maila txikietan, neska-mutil gaztetxo asko dabil arraunean. Eta Arraunetxe daukagu herrian: Kantauri guztiko arraun zentrorik onena.

Iragana ere alde dugu. Garaipen urte guztiak aipatzeko leku faltan, eta 2023an gaudenez, 3 zenbakiarekin bukatzen diren XX. mendeko urteak gogoratuko ditugu, onak izan baitziren Oriorentzat Kontxan: 1903 eta 1913an ez



1923ko kuadrilla, Uranga patroia. Gerora patroia izandako hiru, ondoan: ezkerrean, Mitxelena; eskuinean, Urdangarin Txato; eta behean, Erramon Lino. Urangaren gainekoa: Txokolate.

zen estropadarik izan; 1923an (Uranga, patroia), bandera; 1933an (Mitxelena), bandera; 1943an (Mitxelena), bi estropadetakoa batuz, denbora onena baina banderarik ez (horrek ekarri zuen hurrengo urtean araua aldatu eta lehen txandakoek ere bandera irabazi ahal izatea); 1953an (Sarasua), bandera; 1963 (Gorriya), bigarren; 1973an (Altxerri), bigarren; 1983an (Altxerri),

**BATZUEK,
TRADIZIOAREN
IZENEAN, ALDAKETAK
EGITEARI TRAZIO
DEITZEN DIOTE**

bandera; eta 1993an (Txiki-Korta), hirugarren.

Epe laburreko etorkizun eder batekin amesteko osagai asko ditugu esku artean. Eta inportanteena: tradizioa, eta horri lotutako eskarmentua eta jakituria, oso aberatsa gainera.

Zer da tradizioa?

Latinezko jatorrizko hitzaren etimologiari dagokionez, tradizioa ekartzea da, tradere, iraganetik orainera ekartzea, aspaldikoa urtero berrituz. Zer ekarri, baina? Ba, gure arbasoak, haien antzinako historia eta istorioak, arraunean utzitako ubera. Tradizioak haiekin lotzen gaitu. Orion arraunak du tradizioa, beste kirol edo jardun gehienek ez bezala. Eta horrek, ia mende eta

erdiko etorbide luze horrek, eman dio herriari daukan nortasuna, bere izaera berezia. Eta horrek emozioak askatzen ditu, zirrara, barrena ukitzen digu.

Baina tradizioa arriskutsua izan daiteke. Nola erabiltzen den! Batzuek, tradizioaren izenean eta aitzakian, aldaketak egiteari traizio deitzen diote. Eta edozein berrikuntzari atea itxi. Hori gertatu da herri batzuetan: matxismoaren eta atzerakoikeriaren alarde itsusia, festan emakumeei parte hartzeko eskubidea ukatuz. Bide batez, gezur galanta esanez, aldaketak beti gertatu baitira jarduera guztietan, eguneroko bizitza bera aldaketa baita. Eta alardeetan bezala, arraunean ere aldaketa handiak izan dira, urteen joanean. Orain 100 urte, 1923an, Antonio Maria Uranga patroia zela Oriok bere seigarren bandera irabazi zuenetik, berrikuntza asko izan dira Donostiako estropadetan.

1923tik 2023ra arteko aldaketak

Donostiako estropadetan, orduan, arraunlari guztiak arrantzaleak ziren, eta taldearen herrikoak. Ontziak eta arraunak denak egurrezkoak, oso astunak (oriotarren San Nikolasen 370 kilo zituen). Entrenatu udan bakarrik egiten zuten; hori bai, lana bera urte guztiko entrenamendu zuten. Elikatzeko modua arras bestelakoa zen: herritarrek dirua bilduta, mutilek egunero txuleta handi bana jaten zuten, eta sagardoa edo baxoerdia edan, ura txarra baitzen, ez zuten indarririk ematen.

Taldearen kolorea zozketatu egiten zen. Oriok 1901ean txuriz irabazi zuen Kontxako bere



1943an Mitxelenarekin oriotarren Kontxako 13. bandera izango zena ez zen izan, bi estropaden denborak batuta onenak izan arren.



1983ko bandera ospetsuaren garaiko arraunlariak, eta haien buru, Altxerri anaiak: ezkerrean, Juanito, patroia; eta eskuinean, Jose Ramon, arraunlari ohia.

aurreneko bandera; 1909an, berdez; 1910ean, urdinez, 1916an, morez; 1919 eta 1923an, horiz; 1925ean, txuriz; 1933an, morez; 1934an, horiz; eta 1939an, berdez, hamargarrena. Horiek izan ziren Orioren koloreak, 1940an talde bakoitzari kolore bat egokitu zitzaion arte.

Bi estropadak, urte batzuetan, segidako bi egunetan jokatu zituzten. Bigarrena, bi ontzik bakarrik, finalera sailkatutako biek. Haiek bakarrik zuten

bandera irabazteko aukera; eta aukera berdintasunaren izenean, ontziak trukatu egiten zituzten, bakoitzak besteari traineruan jokatzeko zuten, eta denborak batu.

Jakina, orduan ez zegoen gaur egun egungo teknologiarik, ez GPS, ez telebista, ez irratiarik. Aurrerapen handiak izan dira. Galera nabarmenak ere bai: Orain dela gutxi arte, estropadaren aurretik ahozko apustuak izaten ziren Portaletan (Oriok bandera



Aurtengo uztailaren 16an, Plentzian irabazitako banderarekin, Orioko Badok 13! taldeko neska-mutil beteranoak; arraunean, urteak, umorea eta lehia bateragarri direla erakusten.



Nadeth Agirre, Orioko traineruko patroï handien historiara pasatuta, bere ibilbide luze eta aberatsari agur esan dion urtean, 2023an.

baietz!); estropadaren ondoren, herriko bertsolariak bertso-sorta osoa jartzen zion estropadari, herritarrek ikasi egiten zuten eta haiek kantatuz gauzatzen zen arraunarekiko grinaren transmisioa. Orain bai Portaletako ahozko apustuak, bai estropaden bertso-paperak iragana dira.

Nahiz eta komunikabide ofizial guztiak erdara hutsean aritu, arraunlariak eta jarraitzaileak euskaraz aritzen ziren; arrauneko *Ciaboga* aldizkariak euskaraz egin zion Manuel Olaizola patroï oriotarrari elkarriketa, zergatik

arraunlarien artean *Acaba!* eta *Sigue!* asko entzuten dugu, Kontxako bi puntetan dagoen Oteizaren *Eraikuntza hutsa* izeneko eskultura bera ere aspertzeko adina, etxea (h)uz(s) ten ari delako.

Berrikuntza handienak

Behin, oso aspaldi, estropadaren ondoren, Donostiako Alde Zaharreko jatetxe batean, bi arraunlari-kuadrilla bazkaltzen ari ziren. Batzuk, aupa eta bibaka; besteak, marmarrean, haserre eta elkarri errietan. Zerbitzatzen zebilen neskak, giroa antzemandu, galdetu zien

eta Manuel erdaraz moldatzen ez zelako, edo bere hizkuntzan nahi zuelako. Orain, berriz, telebistak eta irratiak estropada euskaraz ematen digu, baina aldi berean,

pozik zeudenei: *Zer, zuek estropada irabazi egin al duzue?* eta haiek *Bai zera, guk seigarren egin dugu!*, eta orduan neskak: *Hortaz, horiek azkenak izan al dira?* eta: *Bai zera, horiek bigarren, baina oriotarrak dira!* Orduetik hona gauzak aldatu dira pixka bat: ikasten ari gara ez irabaztea ez dela galtzea, aurrena ez iritsita ere irabaz daitekeela, banderarik ez bada ere.

Aurten, bai estropadaren aurretik bai ondoren, sekulako jai-giroa erakutsi zuten Orioko jarraitzaile gazte pilak, herriko txarangarekin, beren kantu eta hori koloreko ke-poteekin, beren *Aupa Orio!* eta saltoekin. Jon Lizarralde arraunlariak "Dena eman dugu, eta dena eman duen bati ezin zaio ezer aurpegiratu" adierazi zuen, nolabaiteko konformidadea erakutsiz.

Txaranga aurten plazaratu da herrian, udako aliron guztietan arratsa alaitu die plaza aldera azaldu diren herritarrei. Aspaldiko estropalariei egiten zitzaizkien ongietorri jendetsuetako argazki



Aurten inoiz baino jende gazte gehiago inguratu zen Donostiara, arraunlariak animatzera.



Bost altxerritar: Jon eta Mikel Lizarralde, aurtengo traineruko anaia arraunlariak; eta hurrengo belaunaldiko Oihan, Eñaut eta Aimar Lertxundi. Tradizioaren eta etorkizunaren irudia.

zaharretan ikusten den musika-banda gogorarazten digu. Kontxako bigarren igandean han izan genituen, txapela horia buruan, jendeari goiza alaitzen Donostiako portuan. Oriotarrek aurten Donostiako uretan ez zuten irabazi, baina lehorrean, alde handiz.

Azken urteotan izan da garrantzi handiko beste berrikuntza bat arraun-giroan. Gaur egun, adin guztietako jendeak du aukera herrian bertan arraun egiteko, baita jubilatuek ere, bai lehiatik kanpo, plazer hutsez, aisialdi moduan: *Oria bizi* taldearen bidez; bai lehiari ere, estropadetan: Orioko *Badok 13* neska-mutil beteranoen taldean. Eta u. dalaren eta arraun elkartearen artean ari dira, pixkana, Arraunetxek herriari eskaintzen dizkion aukerak baliatzen.

Nadeth Agirreren aroa

XXI. mendeko aldaketarik handiena, hala ere, nesken arrauna izan da. Garai batean, emakumea figura dekoratibo hutsa zen arraunean: amandrea,

ospakizunetarako; bakoitzak etxean arraunlaria zaintzen egiten zuenaz gain. Alarde batzuetan ez bezala, zorionez, arraunaren munduan atea zabalik ditu emakumeak: XXI. mendeak nesken traineru-estropadak ekarri dizkigu. Ez da erabili tradizioaren aitzakia atea ixteko.

Nadeth Agirre Orioko traineruko patroiak hamazazpi urte eman ditu arraun-taldean, eta hamalau, traineruko patroia, jo ta ke lanean. Bidean 65 bandera eta beste 22 garaipen ekarri ditu Oriorentzat, inork baino gehiago. Erraz esaten da! Aurten agur esan dio arraunari, eta patroia oriotar handien zerrendan sartu da, Orioko arraunaren historian.

Orain dela 100 urte, 1923an, Antonio Maria Urangari egin zioten bertsoa orain Nadeth Agirreri egokitu diogu: *Ziatzaile ederra da, Agirre gurea neskak bideratzeko, non dago hobea? gorputzez egokia, begia ernea aisa igarotzen da,*

zurekin bidea bejoindeizula, Nadeth, Orioko-lorea!

Etorkizunari begira

Laster arraun klubaren zuzendaritzan berrikuntzak etorriko dira. Ez da lan erraza bide horretan abiatzen direna. Ez da beti samurra. Ausardia behar izaten da, eta ilusioa. Handia.

Orain arte bide luzea urratu du Oriok arraunean, erriotik itsasora eta itsasotik erriora ubera luzea utziz. Historia harrigarri aberatsa osatu dute horretan aritu direnek. Urteen joanean, denetik izan da, onetik eta txarretik: garaipenak eta porrotak, batasunak eta zatiketak... Baina herri honek arraunari eman diona eta arraunak herriari emandakoa, biak, izugarri handiak eta onak dira. Eta hori elikatzen segitu behar dugu.

Beraz, tradizioari eutsiz, berrikuntzei atea zabalduta eta esperantza elikatuz, iragana gogoan dugula etorkizunari baikortasunez begiratuko diogu.

LEHIAKETA

NIN DAGO? KARKARA?

Aurkitu Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **karkara@karakara.eus** helbidera

urriaren 20a baino lehen.

Saria: Arbela Txakoliña.

Karkara Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



41. orrialdean
zegoen ezkutatuta
Nagore Etxaniz
bazkidea izan da irabazlea.

Leina Casanova: "Euskara niretzat bizitza da: kristalezko bolatxo bat bezala irudikatzen dut"

TESTUA: AMAIA OLAZABAL

Leina Casanova kubatarra da, eta duela bost urte etorri zen Euskal Herrira. Aian bizi da, eta Orioko AEKn ari da euskara ikasten.

Noiz entzun zenuen euskara edo euskarari buruz zerbait lehen aldiz?

Kuban bizi nintzela jakin nuen euskararen eta Euskal Herriaren berri. Nire bikotea ezagutu nuen izan zen, orduan jakin nuen zer zen euskara eta euskal mundua; niretzat, ordura arte, dena Espainia baitzen. Bikoteari esker ezagutu nituen euskarazko lehen hitzak: *muxu bat, maitia, bihotza...* Ezagutu eta urtebetera han hasi nintzen euskara ikasten, Habanako euskaltegian.

Zer eman dizu euskarak?

Euskara niretzat bizitza da: kristalezko bolatxo bat bezala irudikatzen dut, zure eskuetan duzuna eta lurrera erortzea nahi ez duzuna. Bizirik mantendu behar dugun kristalezko bolatxoa da. Eta niri, pertsonalki, sozializatzeko aukera eman dit. Nahiz eta gaztelaniaz jakin eta horrekin moldatu, hemen euskara oinarria da, eta nik ere integratu nahi dut. Mundu horren parte izan nahi dut, eta horregatik ari naiz ikasten.

Garrantzitsua al da euskara ikastea?

Egia da, hasieran, etortzen zarenean ez diozula hainbeste garrantzirik ematen euskara ikasteari; une horretan beste lehentasun batzuk dituzu (lana eta diru pixka



bat lortzea, adibidez). Baina, denbora aurrera joan ahala, konturatzeko zara euskara ikastea beharrezkoa duzula: lanerako, harremantzeko, denerako. Aia herri euskalduna da, gainera.

Zer izan da zailena?

Hasieran hona etorri eta ezer ez ulertzea. Ez jakitea jendea zertaz ari den, gogorra da. Agian ez dira zutaz ari, baina ez dakizu zeri buruz hitz egiten ari diren. Azken batean, arrotza sentitzen zara, ez zaude ez Kuban, ez hemen... Norberaren hizkuntzan hitz egiten ez den leku batean egotea da zailena.

"HASIERAN, ETORTZEN ZARENEAN EZ DIOZU HAINBESTE GARRANTZIA EMATEN EUSKARA IKASTEARI"

Nik Kuban ikasi nuena euskara batua zen, baina kalekoa, egunero erabiltzen dena, ez da berdina. Bikotearen familiari, adibidez, ez nion ezer ulertzen. Gero, pixkanaka, hitzak ulertzen joaten zara, eta apurka-apurka ikasten.

Nola lagun zaitzake euskaldun batek ikaste prozesuan?

Oro har, jendeak asko laguntzen du ikusten duenean saiatzen ari zarela. Nik badut horrekin lotuta istorio dibertigarri bat: supermerkatuko kaxan lanean ari nintzela bezero bati nire kutxatik pasatzeko esan behar nion, eta "pasa hemendik" esan beharrean, "alde hemendik" esan nion. Bera berehala konturatu zen nahasteaz, eta irribarretxo batekin, esaldi egokia topatzen lagundu zidan. Horrez gain, euskara ikasten ari zarenean, asko eskertzen da aurrean duzunak apur bat motelago hitz egitea. ■



ADIMEN ARTIFIZIALA ARRISKU BAINO AUKERA GEHIAGO

Adimen artifizialak etorkizuneko izateari utzi dio, eta edonoren eskura jarri da. ChatGPT testu sortzaile autonomoa izan da teknologia horren eztanda eragin duena, eta haren atzetik, arrapaladan etorri dira testuak, irudiak eta audioak sortzeko gaitasun handiko dozenaka sistema. Jakina da adimen artifizialak eraldaketa handiak ekarriko dituela; horren aurrean nola jokatu, hor dago eztabaida. Batzuek, gizateriaren bukaera hurbil egon daitekeela ohartarazi dute; beste batzuek, aldiz, ikertzen jarraitu behar dela uste dute, epe motzera eta epe ertainera ekarriko dituen onurak kalteak baino handiagoak izango direla iritzita. Epe luzera zer gertatuko den, berriz, ezin da iragarri.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Utzitakoa**, **Arnaitz Rubio Aprea** eta **Unax Larrañaga**.





Adimen artifizialak milioika lanposturen galera ekarriko duela, pandemiak eta gerra nuklearrek baino ondorio larriagoak eragin ditzakeela edo gizateria bera desagertzea ekar dezakeela. Hedabideetan gisa horretako titularrak irakurrita, ez da harritzekoa teknologia horren inguruan ezer gutxi dakiten herritarrek beldurra sentitzea. Are gehiago, adimen artifizialaren sektoreko adituek eta enpresaburuek egindako baieztapenak badira horiek. Eta oraindik eta areago, duela gutxira arte adimen artifizialaz ezer entzun ez, eta azken hila-beteotan bazter guztietan horren inguruan hizketan ari badira, dagoeneko errealitate bat dela esanez. Ordea, adimen artifiziala apokalipsiaren pareko jarri duten horiexek beraiek dira teknologia hori garatzeko dirutzak inbertitzen ari direnak; arriskuez gain, bestelako aukerak ere badituen seinale.



"Nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo", adierazi du Gorka Azkune (Azpeitia, 1982) informatikari eta EHUko IXA taldeko ikertzaileak. "Adimen artifizialak potentzial handia duela ukalezina da, eta noraino irits daitekeen iragartzea, ezinezkoa. Adimen artifizialak gizateria mendearen hartuko duela esatea titular mamitsua da telebistan ateratzeko, baina uneotan tamaina horretako baieztapenak egitea gehiegikeria hutsa da".

Adimen artifiziala gizateria mendearen hartzeko bidean den teknologia gisa definituz gero, robotek kontrolatutako planeta bat etorriko zaio burura bati baino gehiagori, filmetan ikusitako irudiak, eguneroko bizimodutik urrun dauden kontuak. Baina, izatez, adimen artifiziala hori baino askoz benetakoagoa da, eta herritarrek urteak daramatzate teknologia hori erabiltzen, ziur asko horren jakitun izan gabe. Esate baterako, eskuko telefonoek adimen artifizialari esker ezagutzen dute jabearen aurpegia; Netflixek adimen artifiziala erabiltzen du bezero bakoitzari zein telesail eta film gomendatu erabakitzeko; GPSek eta Google Mapsek adimen artifizialari esker jakiten dute erabiltzaile bati proposatutako ibilbidearen zati batean auto pilaketak daudela eta helmugara iristeko ohi baino denbora gehiago beharko duela; kirola egiteko oinetakoen beharrean dagoenari sarean nabigatzerakoan etenik gabe kirolerako oinetakoen eskaintzak azaltzea ez da kasualitatearen fruitua, adimen artifizialarena baizik; ohiko supermerkatuaren aplikazioan sartzera erabiltzaile bakoitzaren erosketaren zerrenda prestatzen duen hori adimen artifiziala izaten da; eta horrela, zerrenda nahi adina luzatzea legoke.

Adimen artifizialak, era horretako aplikazio eta erabilpenen bidez, urteak daramatza herritarren bizimodua errazten, baina azken hilabeteotako eztanda ez da horien bidetik etorri, horiena baino adimen garatuagoa duten beste zenbait aplikazioen eskutik baizik. Dударik gabe, OpenAI enpresak garatutako ChatGPT testu sortzaile autonomoa da denen artean izarra, eta haren ostean etorri dira beste hainbat, irudiak, audioa eta musika zein testuak abilezia handiz sortzeko gai direnak; besteren artean, Google Bard, Grammarly, Synthesia, Dall-e eta MusicGen.

Adimen artifizial sortzailearen booma

Herritarren eskura dauden eredu horiek adimen artifizialaren esparruan uneotan dauden eredurik onenak direla ziurtatu du informatikariak. "Agian horiek sortu dituzten enpresek izango dituzte eredu hobeak esku artean edo ikerkuntza fasean, baina guk behintzat ez ditugu; eredu horiek erreferentziak dira guretzat". Hala ere, "arazo handi bat" dutela nabarmendu du: "Denak sistema itxiak dira, eta ondorioz, ez dakigu ezer horiei buruz; ez dakigu nola entrenatu dituzten, zer informazioekin, zer arkitektura dituzten, neurona sare horiek nolakoak diren...". Tamalgarritzat jo du hori, zientziak irekia izan behar duela defendatzen baitu azpeitiarrak, "baina enpresa pribatu horiek beste bide bat hartu dute, horrela daude gauzak eta ez dago besterik".


Azkenaldian gehien garatu eta herritarren eskura jarri dutena adimen artifizial sortzailea izan da, eta hori ez zutela espero adierazi du Azkunek. "Paradoxa bat gertatu da. Tradizionalki

pentsatu izan da adimen artifizialak eta antzeko sistemek, funtsean makinek, askoz errazago egingo zituztela guk intelektualki maila baxukotzat jotzen ditugun lanak. Baina gertatu dena justu kontrakoa izan da; guretzat intelektualki maila altukoak diren gauzak egiteko gai direla makinak. Adibidez, marrazki bat egitea, poema bat idaztea, melodia bat sortzea... Esku artean ditugun adimen artifizialeko sistemek lan horiek oso ondo egiten dituzte, eta, oro har, zientzialarien komunitateak ez zuen horrelakorik espero".

Baina Azkuneren irudiko, garrantzitsua da hori guztia testuinguruan jartzea; izan ere, azpeitiarraren hitzetan, "adimen artifizial sortzailea izateak ez du esan nahi sormena daukanik". Eta eztabaida sakonago bat atera du mahai gainera: zer den sormena. "Guk sormena al daukagu? Baietz uste dugu; baina zer da sormena? Nik dakidala, oraingoz inork ez du ondo definitu. Gertatzen dena da, sistema horiek eskura duten datu sorta mardularen ondorioz eta beraien arkitekturak diren bezalakoak direlako, gaitasun handia daukatela modalitate desberdinetako informazioa sortzeko –testuak, audioak edo musika, irudiak–, eta, gainera, oso modu txukunean egiten dituztela lan horiek". Horren inguruan eztabaida dagoela aipatu du Azkunek. "Sortzen dituzten horiek zenbateraino diren berriak, edo entrenatzeko erabilitako datu pila horretatik ateratakoarekin sortutako segida bat diren. Baina gizakiak zerbait sortzen duenean ere sor liteke zalantza hori. Musika talde bat entzun, eta zenbat aldiz esaten da beste talde baten eragina daukala? Zer esan nahi du horrek, kopiatzen ari direla? Ez, baina izan lezake bestearen estiloa edo ukitu bat".

Beldurra pertsonei, ez teknologiari

Adimen artifiziala azkar eta asko garatu da azken urteotan, baina hastapenetan besterik ez dagoela esaten dute adituek. "Adimen artifizialaren asmoa da gizakion adimenaren mailakoa den adimen bat lortzea, edo harago joatea, baina makinak erabilia", zehaztu du Azkunek. Haren ustetan, "adimen artifizialak egunen batean gizakiaren adimena gaingitu egingo du", baina hori bere ustea bakarrik dela azpimarratu du. Hori noiz izango den iragartzea, ordea, zaila iruditzen zaio. "Nik urruti ikusten dut makinek gizakia gaingitzea ezaugarri mailan. Oraindik ere gauza asko falta zaizkigu gizaki baten adimenaren pareko zozortara iritsi ahal izateko, baina ez dakidana da hori urruti dagoen denboran. Gauzak hain azkar doaz, hainbeste diru dago arlo honetan eta hainbeste jende lanean, ez nintzateke ausartuko esatera hori bost edo hamar urte barru izango den, ez baitaukat ideiarik".




Adimen artifizialari beldurrik izan behar al zaion galdetuta, ezetz esan du Azkunek. "Adimen artifiziala, beste gauza asko bezala, erreminta bat da, eta beldurra pertsoneri eduki behar diegu, ez adimen artifizialari. Egongo dira adimen artifiziala ondo erabiltzen dutenak eta gaizki erabiltzen dutenak, eta horregatik, arautu egin beharko dira zenbait gauza, baina nik jende apokaliptikoari ez nioke batere kasurik egingo". Adimen artifizialak hori baino "arrisku ukigarriagoak, gertukoagoak eta ezagunagoak" badituela ohartarazi du. "Jende apokaliptiko horri kasu egiten ari garen bitartean, ari gara benetako arazoak diren horiek albo batera uzten, askoz hobe genukeenean horiek konpontzen saiatzea". Arrisku horiek zeintzuk diren ere adierazi du. "Adimen artifiziala erabil daiteke guk gizarte bezala dauzkagun hainbat alborapen anplifikatzeko; adibidez, sexismoa eta arrazakeria. Gaur egun esku artean ditugun adimen artifizial sistemak guk sortutako testuekin entrenatzen direnez, dagoeneko baditugun joera negatiboak bere egiten ditu, eta horrez gainera, areagotu edo aplikatu ere egin ditzakete". Adibide bat ere eman du: "Demagun informatikari bat behar duzula eta adimen artifizial sistema bat erabiltzen duzula jendea kontratatzerakoan curriculumak jaso eta lehen galbahea pasatzeko. Adimen artifizialak guk idatzitako testu asko irakurri dituenek, informatikaria gizonarekin erlazionatzen du eta ez emakumearekin; horregatik, aukera handiak leudeke emakume askoren curriculumak alboratzeko. Hori adimen artifizialari erabilera txarra ematea litzateke, jakitun garela-ko arazo hori existitzen dela. Jendea ari da ikertzen hori konpontzeko, baina badaukigu badaudela enpresak sistema horiek erabiltzen ari direnak jendea kontratatzeko".

Beste arriskuetaiko bat sistema horiek esaten dutena itsu-itsuan sinestea dela ohartarazi du azpeitiarrak. "OpenAI enpresako CEO Sam Altmanek behin esan zuen ChatGPT erabil daitekeela medikuaren kontsultara joatea ordezkatzeko, eta hori izugarritzko astakeria da. Baina ez dago esaterik hori arazo berria denik: norik ez dio galdetu Googleri belaunean duen mina zer izan ote daitekeen? ChatGPTrekin are errazagoa da hori, berarekin hitz egiteko aukera ematen dizulako". Azkuneraren hitzetan, jendeak ulertu behar du horiek erreminta batzuk direla, eta esaten dutena oso urruti egon daitekeela errealitatetik edo oso gertu, gauza batzuetan asmatzen dutela, baina beste gauza batzuetan ez. "Azken baten, guk geuk oso kritikoak izan behar dugu, ezin dugu oso-osorik irentsi esan diguten dena, hanka sartze handi bat egiten ariko baikinake, eta gauza bera Googleri eta sare sozialei dagokienez ere. Bada jendea sare sozialetan ikusten duen guztia zuzenean egiazkotzat jotzen duena, ezer zalantzan jarri gabe. Gogoan dut irailaren 11ko atentatuen bueltan ere gertatu zirela horrelakoak. Bideo bat zabaldu zuten esanez talibanak atentatuak ospatzen ari zirela, eta bitartean, bideoa bost urte lehenago grabatutakoa zen eta palestinar batzuk ageri ziren festa batean. Orain *fakenews* gisa ezagutzen diren gezurretako istorioak beti egon izan dira, eta aurrerantzean ere egongo dira". Adimen artifiziala erreminta oso lagungarria izan daitekeela esan du ikertzaileak, baina ez edozer gauzatarako; "jakin egin behar da zertarako izan daitekeen ona eta zertarako ez".

"Adimen artifizialari ez diogu beldurrik izan behar, pertsoneri izan behar diegu beldurra"

"Mezu apokaliptikoak ematen dituzten horiei, nik ez nieke batere kasurik egingo"



Andoni Sudupe (Azpeitia, 2002) Adimen Artifizialeko Gradua egiten ari da EHUren Donostiako Informatika Fakultatean. Lehen promozioiko ikaslea da, eta ondo bidean, hasi berri duen ikasturtea izango du azkena.

Nolatan erabaki zenuen Adimen Artifiziala ikastea?

Informatika Ingeniaritza ikastea pentsatzen ari nintzen, ordenagailuak eta matematikak gustatzen zaizkidalako, baina Ingeniaritza Eskolako ate irekietako saioan adimen artifizialaren inguruko hitzaldi bat entzuteko aukera izan nuen, eta konbentzitu egin ninduten. Adimen Artifizialeko ikasketak Informatika ikasketen antzekoak dira, baina hardwareari lotutako gaiak gutxiago lantzen dira, eta matematikak gehiago. Informatikan esparru asko ukitzen dituzte, eta horien artean bat da adimen artifiziala; Adimen Artifizialeko ikasketak, aldiz, espezializatuagoak dira.

Zer ikasi duzu hiru urteotan?

Lehendabiziko bi ikasturteetan, gehienbat informatikari lotutako gauzak landu genituen, eta iaiz hasi ginen adimen artifizialean sakontzen, gaur egun dauden ereduak, horien arkitekturak, arkitektura bakoitzaren puntu interesgarrienak eta abar

"la ezinezkoa da aurreikustea ikasturte bakoitzean zer landuko dugun"

ANDONI SUDUPE

ADIMEN ARTIFIZIALAREN GRADUKO IKASLEA

ikusten nahiz horiek nola programatzen diren eta nola erabiltzen diren ikasten. Adimen artifizialaren barruan adar asko daude –hizkuntza, irudia, osasuna...–, eta eredu asko ere bai; adibidez, azkenaldian horren ezagun egin den Chat GPT eredu bat da.

Adimen Artifiziala ikasten hasi zinenetik, izugarri garatu eta aldatu da esparru hori.

Bai, esan liteke ordutik hona garatu dela ia dena; duela lau urte bazegoen zerbait, baina booma harrezkero gertatu da. Ondorioz, gure ikasketak ere erabat aldakorrek dira. Irakasleek ikasturtearen hasieran esaten digute irakasgai bakoitzean zer lantzen hasiko garen, baina ez ikasturtean zehar zer landuko dugun; ia ezinezkoa da hori aurreikustea.

Bizitza guztian ikasten jarraitzeko prest al zaude?

Adimen artifizialaren arloan lan egin nahi badut, derrigorra izango dut. Esparru honetan, hilabete batez deskonektatuta egotea nahikoa da bueltan zeure burua galdu-galdu eginda ikusteko.

Zein arlotan lan egitea gustatuko litzazuke?

Praktikak Elgoibarko [Gipuzkoa] Ideco enpresan egin ditut, gradu amaierako lana han egiteko aukera eskaini didate eta ez litzaidake axolako lanean bertan segitzea ere. Robotak erabiliz, enpresei irtenbide aurreratuak eskaintzea da han egiten dutena, eta gustuko dut esparru hori.

Ez dirudi lan aukerarik faltako zaizuenik...

Ez dirudi, ez. Adimen artifizialak ekar dezakeen eraldaketaz jabetu ahala, era guztietako enpresak ari dira esparru horretan urratsak egiten.

Bada motiborik adimen artifizialari beldurrik izateko?

Adimen artifizialari ez, baina agian bai batzuek eman diezaioketen erabilerari.

"ERA GUZTIETAKO ENPRESAK ARI DIRA ESPARRU HONETAN URRATSAK EGITEN"



Abokatua eta adimen artifizialean aditua da Elen Irabazabal (Zarautz, 1990). Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta doktoregaia da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Abokatuei programatzen irakasten die eta *La inteligencia artificial explicada para abogados* liburuaren egilea da.

Noiz hasi zinen adimen artifizialean interesatzen?

Zuzenbidea ikasi ostean, Nazioarteko Harremanetan graduondokoa egin nuen Madrilén, eta gero, Indiara joan nintzen bidaian. Han atentzioa eman zidan herritarren oinarritzko beharrak estali gabe egon arren, denek zutela smartphone bat esku artean. Zarautzera itzuli nintzen eta bizpahiru urtean arlo juridikoan aritu nintzen lanean, nahikoa denbora jabetzeko zein gaizki funtzionatzen duen esparru horrek. Garai hartan dagoeneko Big Dataz hitz egiten zen eta adimen artifizialaz hitz egiten ere hasita zeuden adituak. Petrolio berria datuak izango direla eta horrelakoak esaten dituzte, eta neure erara ikertzen eta ikasten hasi nintzen.

Madrilera bueltan, esparru horretan sakontzen jarraitu nuen, zibersegurtasunaren

"EPE LUZERA BEGIRA
GERTA DAITEKEENA EZ
DAGO BATERE ARGİ, EZIN
DA AURREIKUSI"

"Adimen artifizialaren inguruan, eztabaida lasaiagoa behar dugu"

ELEN IRAZABAL

ABOKATUA ETA ADIMEN ARTIFIZIALEAN
ADITUA

arloan lanean hasi nintzen, eta abokatuei ikastaroren batzuk emateko deitzen hasi zitzaizkidan. Jauzia, ordea, pandemia garaian egin nuen: autonomo egin nintzen, eta *Abokatuentzako konputazio zientziak eta programazioaren logika* ikastaroa ematen hasi nintzen. Adimen artifizialaren inguruko kontzeptuak abokatuei beraiek ulertzeko moduan azaltzen saiatzen naiz.

Azken hilabeteetan adimen artifizialaren eztanda gertatu da, eta ekar ditzakeen onurez ez ezik, arriskuez ere ohartarazi dute batek baino gehiagok, nahiko mezu katastrofisten bidez, gainera. Beldurtzeko motiborik badela uste duzu?

Gaur egun eta epe ertainera, adimen artifizialak ekarriko dituen onurak kalteak baino askoz handiagoak izango dira. Adibidez, osasungintzan, minbiziaren kontrako borrokan eta, aurrerapen handiak egiten ari dira adimen artifizialari esker. Baina horrek ez du kentzen arriskuak ere badituenik. Epe luzera begira, esaterako, ez dago batere argi zer gerta daitekeen, ez baitakigu noraino iristeko gai izango garen. Gizakien adimena gaintutako duen adimen artifizial bat sortu nahian gabiltza, baina ez dakigu lortuko dugun ala ez, eta lortzen badugu zertara eraman gaitzakeen horrek eta zein izan daitezkeen ondorioak.

Adimen artifiziala arautzeko beharra nabarmendu dute batek baino gehiagok. Gaur egun ba al dago adimen artifizialari eragiten dion legedirik?

Adimen artifiziala arautuko duen legedia lantzen ari dira Europako Batasunean, baina egun indarrean dauden lege batzuek dagoeneko eragiten

diote adimen artifizialari; esate baterako, datu pertsonalen babeserako legeak eta zibersegurtasunaren ingurukoak.

Europako Batasunean adimen artifizialaren inguruko araudia lantzen ari direla esan duzu. Nolakoa izan behar luke araudi horrek?

Adimen artifizialaren inguruan legedi espezifiko bat lantzen ari dira, bai, baina horrek ez du esan nahi araudi hori ona izango denik, eta adimen artifiziala behar bezala eta egoki arautuko duenik. Aurrena, indarrean dauden legeek adimen artifizialari nola eragiten dioten zehatz-mehatz jakiteko azterketa bat egin beharko litzatekeela uste dut, ikusteko zer dagoen eta zer behar den. Adimen artifiziala arautzeko lege bat egingo dute, baina adimen artifizialaren esparruan gabiltzanon jarduna lege horrez gain beste batzuek ere arautuko dute, esaterako, nire kasuan, autonomoen inguruko legediak. Batak besteari nola eragingo dion aztertu gabe jarduteak dena lausotuko du eta ez zait iruditzen prestatzen ari diren legedi hori behar bezain argia eta eraginkorra izango denik.

Arautu al daiteke horren dinamikoa den zerbait?

Adimen artifizialaren inguruko proposamena pasa den urteko apirilean ateratu zen eta oraindik ez dago indarrean. Hau da, urtebete baino gehiago pasatu da, eta oraindik ez dago garbi noiz jarriko den indarrean. Prozesu legegileak motelak dira, burokratikoak, baina adimen artifizialak ez du itxarongo.

Adimen artifiziala noraino iritsi daitekeela uste duzu? Ikusten al diozu mugarik?

Adimen artifizialaren inguruan iragarpenak egitea oso zaila da, ezinezkoa. Uste dut inor gutxik espero zuela adimen artifiziala horren indartsu sartuko zen esparruetako bat arte sorkuntzarena izatea, eta begira zer ari den gertatzen. Gaur egun baditu mugak, muga filosofikoak, muga fisikoak eta abar. Gakoa izango da muga horiek gainditzeko gai izango garen ala ez, eta gainditzea lortzen badugu, noiz izango den hori.

"ADIMEN ARTIFIZIALAREN
INGURUKO LEGE BAT
EGITEAK EZ DU ESAN NAHI
HORI ONA IZANGO DENIK"

Zure ustez, gaur egungo ezagutzaren mugak modu autonomoan gainditzeko gai izango al da?

Hori ikusi egin beharko da, zaila da horrelako zerbait aurreikustea. Printzipioz, adimen artifiziala gure adimena baino azkarragoa bada, guk espero ez ditugun edo espero ezin ditugun gauzak ager daitezke.

ChatGPT bezalako tresnak gizakiek sortutako ezagutzaz elikatzen badira, nola eman dezake urrats bat harago?

Adimen artifizialaren ikaskuntza prozesua eta gurea ez dira berdinak. Adimen artifizialak datu bolumen handietatik ikasteko gaitasuna du, eta gizakioi ez bezala, adimen artifizialari ez zaio ezer ahaztuko. Hori da iragarri ezin den bere osagaietako bat eta arrisku gehien sor ditzakeena, ez baikara gai horrek izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko.

Argi dago adimen artifiziala aukera asko eskaintzen dituen tresna dela. Hortaz, alderdi batzuetatik zergatik ari dira adimen artifizialaren inguruko ikuspegi ezkorra indartu nahian?

Gaur egun beldur handiegia dago adimen artifizialaren inguruan, eta eztabaida lasaia gero behar dugu. Onurak arriskuak baino handiagoak izan arren, egia da arriskuak ere hor daudela, eta normala da jendea kezkatuta egotea; adibidez, teknologia horrek bere lanean izango duen eraginarekin. Adimen artifizialak gaur egun egiten ditugun lanen balioa aldatu egingo du. Adibidez, sektore juridikoan, nik ezagutzen dudana horretan, gaur egun oso lan automatikoak egiten dituzten horiek dira beldur gehien izan beharko luketenak. Izan ere, abokatu baten balioa ez datza informazioa ekoiztean, hori adimen artifizialak egin dezake.

Hainbat lanbide eraldatuko ditu, baina enplegu berriak ere sortuko ditu.

Bai, noski. Internet iritsi zenean ere antzeko zerbait gertatu zen. Asko ziren teknologia horrek izan zitzakeen mehatxuak edo arriskuak salatu zituztenak. ■

Bada giroa Orioko gazteen artean

ARGAZKIA ETA TESTUA: AIORA
LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Irailaren 22an, gauean, danbor hotsak hartu zuen Orioko herrigunea, Gazte Festak iritsi zirela iragarritz. Eguraldiak ez zuen zapuztu plana, eta Dikean abiatu zuten *piratek* ibilbidea; plazan geldialdia egin ondoren, herria zeharkatu zuten kaleetan jai giroa jarritz, eta danborradako ohiko doinuez gain, oso oriotarra den *Erregien karterua* deia jotzera ere animatu ziren gazteak zenbait unetan, umoretsu.

Hurrengo egunean, gazte eta beterano mordoak parte hartu zuten paella lehiaketan, herri bazkarian, arratsaldeko poteo musikatuan eta gaueko kontzertuetan. Berriz ere, Orioko gazteriak erakutsi zuen indartsu eta gogotsu dagoela eta bada giroa Orioko gazteen artean. ■■■





DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41